



## Werten unibertsitate erreforma

### Enpresa pribatuen eta eliteen menera



- **Pornografia Interneten** Gazteen heziketan duen eragina aztertu dute
- **Jean Claude Iriart**, Baionako auzapetzarako hautagaia «Lehen itzuliko emaitzak ezagutu ondoren finkatuko ditugu estrategiak»
- **Larrun** Palestina irtenbide justu baten bila
- **Manex Fuchs**, antzerkilaria «Gizarteak ispilua behar du, erregeak bufoia behar duen gisan»
- **Net Hurbil** Nekazaritza produktibistak badu errua Ingalaterrako uholdeetan
- **Barcinaren gobernua kolokan** Bakartxo Ruiz eta Patxi Leuzaren iritziak



**Itzultzaileak:** *Amaia Lasheras eta Aritz Branton*

**Ilustratzailea:** *Kepa Peñil*

**Esataria:** *Pablo Sanz*

**Editorea:** *Hamaika Itzulpen*

*Ingalaterrako ipuigile maisuaren bi istorio euskaratu dira lehenengo aldiz. Ironia eta umorearekin batera, Sakik garaiko hezkuntza zorrotza eta zentzugabekoa -1870etik 1916 arte bizi zen- gaitzesten du.*

*Eskuratu dohainik eleberri honen e-liburua eta audio-liburua*

ARGIA eta 11itzulpen-en eskutik, "Saki"-ren **e-liburua** eta **audio-liburua** dohainik eskainiko zaizkie ARGIAko harpidedunei.

**Eskuratu zure pasahitza:**



+34 943 371 545



harpide@argia.com



Azaleko argazkia: J. C. RUIZ / ARGAZKI PRESS  
Azala: GARBINE UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iriztiak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. [www.argia.com](http://www.argia.com): Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Salmenta eta harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Sorraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxa: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxa: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: [komertzial@argia.com](mailto:komertzial@argia.com). Harpidetza: [harpidetza@argia.com](mailto:harpidetza@argia.com). Erredakzioa: [kazeta@argia.com](mailto:kazeta@argia.com). Interneten: [www.argia.com](http://www.argia.com). Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundua



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



## NON ZER

2014ko otsailaren 23a, 2.404. zenbakia

### ASTEKO GAIA

**GAZTEAK ETA SEXUA** Internet eta pornoa sexu hezitzaile.  
NAGORE IRAZUSTABARRENA / 4

### PERTSONAIA

**MANEX FUCHS:** «Jendearen mamuei heltzetik dator antzerkiaren iraupena». SUSTRAI COLINA / 9

### GAIK

**UNIBERTSITATE ERREFORMA** Hezkuntza merkantilizatzeko azken urratsa. MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 14

**AUZOLAN ESPERIENTZIAK** Euskal Udalekueetan borondatez eta pasioz. LIDE HERNANDO / 18

### IRITZIAREN LEIHOA

**UKRAINA** ASIER BLAS / 20  
**(KUTXA) "ERGELA" EZ DA TELEBISTA** IÑAKI MENDIGUREN / 22

**AIHER ETA BIHOTZ** IGNAZIO AIESTARAN URIZ / 23

**GORA PRO NOBIS** ASISKO URMENETA / 21

**TXANDAN** «Gure» gorputza? KATTALIN MINER / 22

**BERTSO BERRIAK** Zer uste duzue gutaz? SUSTRAI COLINA / 23

**ZIRTA** Zentzu erantsiaren zerga(tia). JOXERRA GARZIA / 24

### ERDIKO KAIERA

**STUART HALL** Azken migrazioa multikulturalismoaren aitabitxiarentzat. GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / 26

**DANTZA GARAIDIA** Muelle 3n, programazioa formula berrien bila. MIRYAM GARZIA / 28

**TRIKITIA** Partiturak osatzeko editorea sareratu du Tirikitraukik.  
GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 30

**LITERATURA** ARITZ GALARRAGA / 31

**DENBORA-PASAK** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 32

**ALEA** Aluminiozko adarra. NAGORE IRAZUSTABARRENA / 33

**OSASUNA** JABIER AGIRRE / 34

**LANDAREAK** JAKOBA ERREKONDO / 35

**DENBORAREN MAKINA** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

### TERMOMETROA

**JEAN-CLAUDE IRIART:** «Gure estrategia nola indartuko dugun, hori da giltzarria». MIKEL ASURMENDI / 37

**HASSANNA AALIA:** «Kanpamendu baketsu batean parte hartzeagatik kondenatu naute bizi osoko kartzelara».

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA / 40

**MARKA EUSKALDUNAK** Zer garen erakutsi gurea saltzeko.  
ONINTZA IRURETA AZKUNE / 42

**EUSKARA ALBISTEAK, EKONOMIAREN TALAIA** / 45

**NAFARROAKO GOBERNUA KINKAN**

● **IRITZIA** Bertigo. PATXI LEUZA / 46

● **IRITZIA** Hauxe da herritarren unea. BAKARTXO RUIZ / 47

**NET HURBIL** Uholdeen erronka: aurretik saihestu edo ondo jasaten ikasi. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

**MALTZAGATIK** XABIER LETONA / 50



# Internet eta pornoa sexu hezitzaile

Frantziako Estatuan *You Porn* belaunaldia: mitoa ala errealitatea? izenburuko txostena argitaratu dute. Internetek eta, nagusiki, sarearen bidez gero eta errazago zabaltzen den pornografiak gazteen sexu hezkuntzan eta jardueretan duten eragina baieztatzen duten datuak biltzen ditu lanak.

| NAGORE IRAZUSTABARRENA |

*YOU PORN BELAUNALDIA* txostena argitaratu zenean, komunikabideek, oro har, inkestaren emaitza “kezkarriak” izan zituzten mintzagai: sexuaren banalizatzea, internetekin jaio eta hazi den belaunaldiaren hipersexualizazioa, emakumeak objektutzat dituen eredia hedatzea... Horiek guztiak eta gehiago egotzi

dizkiete teknologia berriei eta, zehazki, internet bidez gero eta eskurago dagoen pornografiari. Inkestaren emaitzak gurera ekarri ote daitezkeen eta ondorioak kezkatzeko modukoak diren jakiteko, ikastetxez ikastetxe sexu-hezkuntza programak ematen dituen Olatz Berastegi sexologoarekin bildu gara.



TINA SCHMER

## YouPorn belaunaldia: mitoa ala errealitatea?

CAM4 webcam bidezko harremanetarako webgunearen enkarguz, Ifop inkesta erakundeak galdeketa egin zuen iazko irailean, teknologia berriek gazteen sexu jokabideetan duten eragina zehazteko asmoz. Inkesta Frantziako Estatuko 15 eta 24 urte bitarteko 1.021 gazteri egin zieten eta emaitzak *YouPorn belaunaldia: mitoa ala errealitatea* izenburuko txostenean argitaratu dituzte. Hemen, txostenean bildutako datu aipagarrienak, bilakaera nabarmenena izan dutenak, bildu ditugu; emaitza guztiak jakin nahi dituenak [http://www.ifop.com/media/poll/2367-1-study\\_file.pdf](http://www.ifop.com/media/poll/2367-1-study_file.pdf) helbidean topatuko du txosten osoa, frantsesez.

Txostenaren lehen atalak gazteen lehen esperientzia sexualak ditu aztergai. Masturbazioari dagokionez, emakumezkoen datuen bilakaera deigarria da: mutiletan ez dago aldaketa handirik, %90 inguruk dio masturbatzen dela; 18 eta 19 urteko nesken artean, aldiz, %59k onartzen du bakarkako lanean aritu izana (1992an %34k bakarrik onartzen zuen). Lehen esperientzia sexual osoa (koitoaz ari da txostena) batez beste urtebete inguru aurreratu da nesketan zein mutiletan, azken 20 urteetan.

Bigarren zatia pornoa eta online harremanak, hau da, komunikazio modu berriekin lotutako harreman sexualak ditu hizpide. Bideo edo irudi pornografikoak ikusteko nabigatu duten mutilen portzentajea igo egin da: 15-17 urte arteko mutilen %53k ikusi dute pornoa interneten (iraganeko daturik ez dago); 18-19 urtekoen portzentajea %42tik %71ra igo da azken zazpi urteetan, eta 20-24 urtekoen artean %47tik %77ra. Baina berriro ere nesken datuen bilakaera deigarriagoa da: 18-19 urteko nesken portzentajea %4tik %42ra igo da, eta 20-24 urtekoena %7tik %42ra, 2006tik hona. Gazteen %38k topaketa guneetan nabigatu du, %24k konbertsazio "erotikoak" izan ditu gune horietan, eta portzentaje berberak sarean aurkitutako jendea bizitza errealean ezagutzeko pausoa eman du. 2006tik hona, datu horiek bikoiztu egin


dira ia 18-24 urte bitarteko gizonen artean eta 20-24 urteko emakumeen artean. Ordutik hona sarean topatutako pertsonekin harreman sexualak izandako gazte kopuruaren igoera are nabarmenagoa da: mutiletan, %7tik %22ra 18-19 adin tartean eta %11tik %27ra 20-24 adin tartean; nesketan, %4tik %13ra eta %6tik %23ra egin dute gora, hurrenez hurren.

Hurrengo puntuan bizitza errealean egiten diren sexu praktikak eta jarrerak aztertu dituzte. Dagoeneko bikote sexuala izan duten 15-17 urteko mutilen %70ek praktikatu dute aho sexua, eta adin bereko nesken %62k (iraganeko daturik ez dago). 18-19 adin tartean sexu orala izan duten mutilen portzentajea %59tik %76ra igo da azken bi hamarkadetan; nesken portzentajea, aldiz, ia bikoiztu egin da (%42tik %78ra). Sexu analari buruzko datuak ere bikoiztu egin dira 1992tik hona, 15-19 urte bitarteko mutiletan eta 18-24 urte bitarteko nesken artean.

Laugarren atala esperientzia sexual birtualei dagokien, baina aurrez halako inkestarik egin ez denez, emaitza berriak alderatzeko daturik ez dago. Mutilen %12k eta nesken %15ek bideoak edo argazkiak egin dituzte biluzik zeudela edo biluzten ari ziren bitartean. Mutilen %7k eta nesken %5ek sexu harreman birtualak izan dituzte webcam bidez. Mutilen %13k eta nesken %4k sexu ikuskizunen bat ikusi dute sexcam bidez, eta ikuskizuna eskaini dute mutilen %31 eta nesken %1ak.

Azken atalak gazteen joera homosexual eta bise-  
xualei buruzko datuak biltzen ditu. Mutilen %10ek eta nesken %18k diote inoiz sexu bereko pertsona batek erakarrita sentitu direla.

2006tik hona, 18-24 urte bitarteko mutiletan datuak %4,8tik %11ra egin du gora, eta adin bereko neskenak %7,4tik %20ra. Dagoeneko sexu bereko norbaitekin harreman sexualak izan dituzten gazteen portzentajea berbera da nesketan eta mutiletan: %10. Eta beren burua homosexualizat edo bisexualizat dutenen kopurua ere antzekoa da: gizonen %9 eta emakumeen %8.



**Eduki pornografikoak zabaltzen dituen YouPorn hosting zerbitzua erabili dute inkestaren izenbururako.**

Berastegik ez du ukatzen internetek eta zinema pornografikoak gazteen sexu garapenean duen eragin handia. Agerian geratzen da, ikastetxeetan jasotzen duten sexu-hezkuntza eta sarean ematen duten denbora alderatze hutsarekin. Ikastetxeek ez dute

sexu hezkuntza eskaintzeko obligaziorik, eta gehienez, DBHko hiru ikasturteetan banatuta, 30 ordu ematen dituzte. Salbuespen onenetan, Lehen Hezkuntzan beste 6 ordu ere eskaintzen dituzte. Beraz, bizitza akademiko ez unibertsitario osoan, 0-36

## Pornoa guztiontzat

PORNOAREN INDUSTRIAK eragiten dituen irabaziak zehaztea zaila da, nagusiki jardueraren parte bat legearen mugetatik kanpo egiten delako; *The Observer* aldizkariaren arabera Kaliforniako San Fernando bailaran kontzentratzen den industriak 13.000 milioi dolar inguru ingresatu zituen 2007an, eta horietatik 4-6 milioi soilik fakturatu ziren modu legalean. Kopuru zehatzik izan ez arren garbi dagoena da, San Fernandoko industriaren fakturazioak erraz gainditu zuela Hollywoodeko industriarena 2000ko hamarkadan.

Pornoak eragin handia izan du interneten. Besteak beste audio eta bideo *streaming*aren, geolokalizazioaren edo ordainketa sistemen garapena bultzatu du. Eta internetek ere eragin handia izan du industria pornografikoan. Porno internet bidez erostea erosoagoa eta pribatuagoa denez, sareak goitik behera aldatu du ordainpeko pronografiaren banaketa. Forbesen arabera, 2001ean internet bidezko pornoaren salmenta 1.000 milioi dollarrera iritsi zen AEBetan, aldizkari pornografikoen salmenta lehenengoz gaindituz. Orduz geroztik, euskarri fisikoen salmentak behera egin du, eta internet bidezko salmentak, aldiz, gora egin zuen, doako banaketak eztanda egin zuen artean behintzat.

Free Speech Coalition elkartearen arabera, 2009an industria pornografikoaren diru-sarrerek %30-50 egin zuten behera. 2007an, aktoreei 500 dolar ordaintzen zitzaaien batez beste eszenako eta 2009an 300 dolar besterik ez. Beheraldia krisialdi ekonomikoari egotzi dakioke neurri batean, baina internet bidezko doako banaketak eragin handiagoa izan du. Eta ez soilik fakturazioan edo filmen aurrekontuetan, baita edukietan ere.

San Fernando bailarako ekoizpen komertzialek kalitate tekniko handia izan ohi dute, baina eduki estereotipatu klonikoak irudikatu ohi dituzte. Doako banaketa, aldiz, eduki anitzagoak eta errealistagoak ekartzen ari da. Pornoaren banaketa *hosting* zerbitzuen bidez egiten da nagusiki, hau da, Youtu-

be moduko guneen bidez. YouPorn, Xtube, PornHub, RedTube, ExtremeTube eta halako plataformetan, erabiltzaileak igotzen ditu bideoak. Horieta-ko asko film porno komertzialen zatiak dira, baina erabiltzaileek etxean egindako bideoak ere jartzen dituzte ikusgai. Porno amateurraren loraldiak mende handia egin die errealismoari eta aniztasunari. Aipatutako webguneetako kategoria zerrendei erreparatuta, orotariko praktikak, genero konbinazioak, partaide kopuruak, adinak, gorpuzkerak, fetixek... aurkituko ditugu. Esaterako, *Hentai* edo marrazki bizidun pornografikoak daude ikusgai, *Instructional* kategorian bokazio hezitzailea duten bideoak aurki daitezke, eta *Female friendly* etiketapean emakumeei zuzendutako bideo pornografikoak daude.

Hala ere, doako webgune hauetan porno komertzialak pisu handia du oraindik. Izan ere ordainpeko pornografia eskaintzen duten enpresa askok amuak (kalitate baxuko film zati laburrak) ipini ohi dituzte doako webguneetan, erabiltzailea beren guneetara eramane eta eduki osoa ordain dezala bultzatzeko. Azken finean, doako gune pornografikoek beste enpresa hauetatik eta publizitatetik lortzen dituzte irabaziak.

Pornografia “demokratikoagoaren” eredu nabarmenetakoa *Porn For Everyone!* (porno guztientzat) ekimena da. Charlie Spatsek sortutako queer porno ekoiztetxe kanadiarrak *crowdfunding*ean oinarritzen du jarduera. Erabiltzaileak zenbait eszena doan ikus ditzake *pornforeveryone.net* helbidean, baina film osoak deskargatu nahi dituenak ordaindu egin behar du. Filmek ez dute prezio zehatzik, ikusleak nahi duena edo ahal duena ordainduko du, eta gainera borondatez ordaindutakoa zer ekoizpenetan inbertitu aukeratu dezake. Eta filmetan zer ikusi nahi duen iradokitzeak aukera ere badu. Ikusle huts, finantzari edo aholkulari izateaz gain, erabiltzailea aktore ere izan daiteke. “edozein genero, sexualitate, gorpuzkera, arraza edo trebetasun” duela ere. Porno guztiontzat eta guztiok egina.



**Porn For Everyone!**  
ekimenaren  
webguneke azaleko  
irudia.



ordu bitartean eskaintzen zaizkio sexu hezkuntzari. Oso denbora gutxi dela dio Harremanak taldeko sexologoak, eta gainera ordu gutxi horiek prebentziora mugatu ohi dira, “eta ez elkarrekin nolako harremanak izan ditzakegun aurreiritzirik gabe ulertzera. Gazteei sexuari buruzko oso mezu negatiboa helarazten diegula uste du. “Sexu hezkuntza kondoi bat duen poster batean laburbiltzen da. Prebentzioa beharrezkoa da, baina harreman sexualak hori baino askoz gehiago dira. Eta helarazten diegun mezuan dena dira mamuak, beldurra, arriskua, kontuz internetekin, pornoa txarra da...”.

Interneten eta pornoaren eraginez gizartea hipersexualizatzeak ez du kezkatzen Olatz Berastegi: “Ez gaude hipersexualizatuta, gutxi eta gaizki sexualizatuta gaude. Estereotipo batzuk oso sartuta dauzkagu; harremanak nolakoak izan behar duten esaten digute, nola seduzitu behar den... baina gure gorputza ez dugu ezagutu ere egiten”.

## Nesken datuak gora

Lehen aipaturiko inkestaren emaitzetan nabarmentzen den lehen datua nesken masturbazio portzentajearen igoera da (inkestako datu askotan errepikatuko da fenomeno hori: mutilen portzentajeak altuagoak dira atal gehienetan, baina nesken portzentajeak azken urteotan izan duten bilakaera ikusgarriagoa da). Duela hogeit bat urte 18-19 urteko emakumeen %34k zioten inoiz masturbatu zela eta gaur egun %59k onartzen dute gutxienez behin masturbatu izana. Baina zer esan nahi du horrek, gehiago masturbatzen direla ala errazago onartzen dutela? “Ziur aski, biak —dio Berastegik—. Pixkanaka, gehiago masturbatzen ari dira eta gehiago aitortzen dute, baina ikasleengan ikusten dut emakumeoi gure gorputzarekiko harremanean ezarritako muga eta beldurren ondorioak oraindik nabarmentzen direla. Mutilak



**“Kontuz” dioten mezuak ohikoak dira interneteko eduki pornografikoetan. Baina gizarteak ere, oro har, arrisku eta beldur mezuak helarazten dizkie gazteei sexuari dagokionean.**

neskez aprobetxatzen diren mezuek edo ‘urdanga’ etiketa jasotzeko arriskuak pisu handia dute oraindik”.

## Praktika onak ala txarrak?

Pornoan ohikoak diren zenbait praktika (aho sexua, penetrazio anala...) asko igo dira txostenaren arabera. Pornoan ikusteko aukera izugarri zabaldu da interneti esker eta, urte gutxitan, sarean pornora jo duten mutilen portzentajea bikoiztu egin da, eta neskena, berriz, hamar aldiz biderkatu. “Ikasleek asko galdetzen dute praktika horiei buruz, batez ere mutilek, eta batzuek ‘nazka’ aipatzen dute. Gaixotasunak kutsatzeko arriskua egon daiteke, baina hori higiene eta prebentzio kontua da. Ezer txarrik ez duela esaten diet, sexukideek probatu nahi izanez gero”. Baina nahi dutelako egiten dute ala pornoaren ereduak bultzatuta eta nolabait behartuta? “Gazteek inguruak bultzatuta eta behartuta jotzen dute alkoholera edo drogara, eta hori bai da





Xapoa

**Bartolo**  
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan  
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38  
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279  
[www.casabartoloetxea.com](http://www.casabartoloetxea.com)



Interneten pornografia kontsumitu duten gazteen portzentajeak nabarmen egin du gora azken urteotan, are nabarmenago nesken artean. Sarean pornoa ikusi duten 18-19 urteko emakumeen portzentajea %4tik %42ra igo da 2006tik hona.

txarra. Baina gorputzaren bidez plazera sentitzea?”.

Pornoa oso “genitalizatuta” dagoela onartzen du Berastegik, baina horrek ondorio positiboa izan dezake emakumeentzat. “Mutilek bilakaera bat behar dute, zakiletik alden du. Eta neskek, alderantziz. Erromantizismoa eta hori guztia ondo dago, baina emakumea gorputza ere bada, eta pornoak horretaz jabetzen lagun diezaioke”.

Finean, bere gorputza deskubritzen ari den gazte batek internetera jotzen du, pornoa ikusten du eta horrek, beharbada, sexu orala probatzera bultzatuko du. Gero ondorioztatuko du nahi duena den ala ez. “Egiten dutenak ez du ezer txarretik, baina dagoeneko esan diegu txarra dela. Zer dago gaizki? Gazteek egiten dutena ala helduon begirada?”.

## Sexualitatea garatzeko ziberespazioa

Batetik, internetek zibersexua ekarri du. Inkesta burutu duen Ifop erakundeko arduradun François Krausen esanetan, “interneteko zenbait plataformek gazteei harreman sexual birtualak izateko aukera eman diete, eta gazteek gehienetan ez dute hori egiteko espaziorik, sedukzio jokoan aritzeko aukerarik”. Zentzu horretan, Olatz Berastegik Wilhein Reichen lana ekarri du gogora. 1920ko hamarkadan psikiatra austriarrak Sexpol sexu politika bideratzeko elkarte sortu zuen. Gazteen sexualitateaz arduratuta, Reichek uste zuen gazteei informazioa eta leku erosoak eskaini behar zitzaizkiela, plazera gorputzaren bidez bizi zezaten. Ia ehun urte geroago, horrelako espazio errealik ezean internetek espazio birtual bat behintzat eskaintzen die, ez soilik

sexu harreman birtualak izateko, baita informazioa biltzeko ere.

Baina internet bizitza errealean sexu harremanak izateko pertsonak aurkitzeko topagunea ere bada. 2006tik hona hirukoiztu egin da sarean aurkitutako pertsonekin sexu harreman errealak izan dituzten gazteen kopurua. Hor ere, helduok arriskuaren mezua etengabe helarazten diegu. Berastegik interneten arriskuak badaudela onartzen du eta arrisku horiek kontrolatu behar direla, “kalean ere arriskuak kontrolatu behar diren bezalaxe. Azken finean interneten dabilen jendea kalean dagoen jende bera da”.

**“Ez gaude hipersexualizatuta, gutxi eta gaizki sexualizatuta gaude. Estereotipo batzuk oso sartuta daukagu, baina gure gorputza ez dugu ezagutzen”**

Olatz Berastegi, sexologoa

Eta arriskuak izanagatik, abantaila handiak ere baditu sareak. “Demagun aurreiritziz betetako herri txiki batean bizi zaren nerabe transexuala edo homosexuala zarela eta bakarrik sentitzen zarela. Interneten bidez, zuk bezala pentsatzen eta sentitzen duten pertsonak ezagutu ditzakezu. Aukerak izugarri zabaltzen ditu”.

Jende berria ezagutzeko gogoia, harreman sexualak izateko gogoia ona dela azpimarratzen du, sexualitatearekin batera txertatuta daukagun beldurrak direla hori guztia negatiboki ikustera bultzatzen gaituztenak. Eta hala ere ez da ezkorra. “Gauzak aldatzen hasi dira, oso mantso bada ere, batez ere emakumeentzat. Gero eta gehiago arduratzen dira beraien gorputzaz, plazera”. Eta beharbada, txosteneko datuetan neskei dagozkien emaitzetan ikusten den bilakaera horren seinale da.

Internet eta pornoa ez dira sexu hezitzaile egokienak. Baina akaso gizartea baino hobexago arituko dira zeregin horretan. ■





PERTSONAIA

MANEX FUCHS

# «Jendearen mamuei heltzetik dator antzerkiaren iraupena»

*“Xoxo beltz bat banuen kaiolan sartua...”.*

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Dani Blanco



1970eko hamarkadako Larzabaleko gazte bat lanbidez antzerkilaria izatea harrigarria da zenbaitentzat. Zuretzat?

Ez hainbeste. Euskal antzerki amateurrek bere gailurra jo eta gainbehera hastear zuen

aro bizi-bizian hazi naiz. Gurasoei esker antzerki anitz ikusi dugu, ohiko aktibitatea zen gure eskualdean. Batean ez bazen bestean, herri osoa oholtzatik iragaten zen urteak ziren. Amikuzeko ikastola eta Xalba-

dor ikastegitik pasa izanak ere badu eraginik gure antzerki bizitzan. Antzerkira dedikatu eta antzerkitik bizitzeak bai ekartzen zuela salto bat, baina naturalki emandako urratsa izan zen. Ez dut inoiz deus harrigarriarik egiten nuen sentsaziorik ukan. Egia da jendeak “zer egiten duzu?” galdetu eta “antzerkia” erantzutean, “eta lanbide gisa?” gaineratzen duela, baina ez dut arraro bizi. Are gehiago, jendeak aktore, zirtzil edo bufoien behar gorria duela uste dut. Zer esanik ez, bizi ditugun garai hauetan.

### Ikusle kopuruaren gorabeherak lotuta daude antzerki amateurraren egoerari?

Publiko baten bizia antzerki amateurrak sustatzen du gehienik. Ez da kasualitatea hegoaldeko eskualde zenbaitetan orain arte ikusten ez genuen zalego gazte bat hurbiltzea antzerkira. Lan amateurrari hertsiki lotua da. Aldiz, Iparraldean, antzerki amateurrak izigarri indartsua izan da urtetan, baina Antton Lukuk bere *Euskal Kulturen* bikain desmuntatzen duen sistemaren erruz, gainbehera nabarmenean da. Profesionalizatzearen izpirituak gidatu ditu indar guztiak eta profesionalizatzeko antzerkia jende jakin baten espezialitatea bilakatzea dakar. Urrezko garai haietan, antzerkia ohizko ekintza soziala zen, dinamika herrikoia, lagunekin egoteko eta ligatzeko aitzakia... Horrek du publikoa egiten. Kalitatez irabaziko delakoan bizitza soziala profesionalen esku uztea iruzur izigarria da, antzerkia jendearen ohiko bizimodutik ateratzeak publikoa husten baitu. Hori da Iparraldean gertatu dena. Pentsa, euskaraz sortu ditugun azken antzerkiak ezin izan ditugu Zuberoan eta Baionan eman. 1969an, *Matalaz* eman zuten Baionako antzokian, gaur egun hori pentsaezina da, ezinezkoa. Horregatik, leku batzuetako berpizkundeak poztu nau, gure lanaren funtsa baita, baina falta zaiguna beldurtzekoa da. Ohiko ekintza izateari uzten dionak desagertzen bukatzen du.

### Gurean ohikoa erakundeez kexatzea da.

Antzerkiaren geroa ez da batere erakundeen esku. Horrek ez du heien beharrik ez dugula erran nahi, baina guretzat lan egin behar dute eta ez alderantziz. Alabaina, gure irizpideak galdu ditugu eta haiek finkatutakoen arabera ari gara. Dena den, antzerkia gizartearen ispilu izateaz gain, kolektiboa da, eta taldean arituz nire indar propioak biderkatzen ditut. Norabide hautatu eta helburu komun batean hamar lagun ari bagara lanean, hamar baino gehiago gara. Ez gara Dabid Goliaten aurka, izatekotan talde bat gara. Horregatik diot Martintxorena dela gurea. Gurean ez dugu

gari-bihirik, eta garirik gabe ezin dugunez ogirik egin, nahitaez joan behar dugu gari-bihi meta izigarri bat duten Basajaunen herrira. Badakigu ezinezkoa dela, baina metaren gainetik salto egiteko parioa hartzen dugula sinetsaraziko diegu, eta metan erortzean gari-bihiak botetan gordeko ditugu gure herrira ekarri eta ogia egin ahal izateko. Izpiritu zirtzil eta aski euskaldun horrekin egin behar dugu aitzina. Biderkatzea da erronka. Ekintza bakoitzak sor ditzala beste bi, bi horiek lau, lau horiek zortzi... Ekimen bakoitzak gure esku egongo ez diren beste antz sor ditzala. Ez dut onarpen instituzionalik espero. Zilborrerako eta poltsikorako ona da, baina luzera begira batere ez. Nik Zuberoan eta Baionan antzerkia euskaraz eman nahi dut, besterik ez.

### Martintxorena bizi-jarrera bat ez ote den...

Jakina, baina ez aktoreei soilik dagokien jarrera bat. Edozein langilek bere buruari eskaintzen ahal dion aukera da. Talde batek abentura kolektibo bat eramatea erabakitzen duenean –guk aurten betetzen ditugu 20 urte– taldearen produkzioa eta norbere baratzaren arteko oreka landu behar du. Ez dut uste bakoitzaren ekarpena bereganatzen eta bakoitzaren nortasunaren onena xurgatzen ez duen lan kolektibo onik dagoenik. Taldearen lanaren baitan norbere baratzzea elikatzeko egiten du obra on eta benetako. Hor hasten da antzerkia politikoa izaten. Antzerkia berez baita politikoa. Sekula errentagarria izan gabe oraindik bizi bada politikoa delako da, gizarteak ispilu bat behar duelako erregeak bufoia behar duen gisan. Horren kontziente izan gaitezke edo ez. Nik nahiago dut kontziente izan eta arma horiek erabili.

### Euskal antzerki nazionala egiteko, adibidez?

Egia da mugaren alde bietan konpartitzen ez ditugun erreferentzia erdaldunez josiak garelako, baina euskaraz aritze hutsak erroten aldatzen du ikuspegia. Entzun dezakezu euskaldun baten kontzertua erdaraz mintzatzen segituz, euskarazko antzerkiak bortxaz sortzen du euskarazko bizia. Afera ez da publi-

## NORTASUN AGIRIA

**Manex Fuchs.** 1975ean sortu zen larzabaldar honek Bordelen antzerkia ikastera joan eta, 1994an, Le Petit Theatre de Pain konpainia sortu zuen Ximun anaiarekin batera. Geroztik Frantziako eta Euskal Herriko oholtzetan dabil *Hamlet*, *Aulki Hutsa*, *Errautsak*, *Traces* edo *Le Siphon* bezalako lan arrakastatsuekin. *Publikoari Gorroto* eta *Iduzkilore* lanak ere zuzendu ditu.









koa erreferentzia erdaldunen zurrunbilotik atera ezinik dabilela, euskal erreferentzien eskasia sentitu eta bila abiatuko dela baizik. Maila horretan, bere funtzioa betetzen du antzerkiak. Gure arazoa, alta, beste bat da: jendearen kode eskasia. Adibidez, toberarena da antzerkiaren kodeetako bat, eta kode horren baitan egon liteke lana ulertzeko giltza. Horregatik, jendeak gure kultura irakurtzeko duen kode eskasiari egin behar diogu aurre. Hori hala, gure erreferentzia komun sorta sortzen ari gara.

**Toberaren tradizioa ez ezik, dantza eta kantua-rena ere biziki presente dira zuen lanetan.**

Euskal antzerkia egiten dugun heinean toberari lotuak gara. Toberari uko egingo bagenio gure nortasunaren zati bat galduko genuke. Tobera izatez da politikoa, hatza zaurian sartzen duena, baina hori kenduz gero zer geldituko litzateke? Mamirik gabeko sorkuntza estetikoetan edo jendeari memento goxo bat pasaraztea beste helbururik ez duen obra hutsaetan oinarritzea ez da iraunkorra. Jendearen eta jendartearen mamuei heltzetik dator iraupena. Hortik dator antzerkilariaren zirtzil izaera. Ez gara deusetan espezialistak baina ur guztietatik edaten dugu. Toberara itzuliz, dantzariek plaza finkatzen dute, bertsolari eta kantariak mamiari zukua atera, eta zirtzilek bazterrak inarrosi. Denen nahasketak dakar eltzekari ona. Barazkiak kentzean zaporea galtzen da. Berez “musika” hitzak arte guztiak biltzen zituen bere baitan. Musika musa zen, inspirazioari eta sormenari loturiko oro. Gainera, hastapenetatik du antzerkiak ofizio guztiak biltzeko bokazioa. Etekinik gabeko zerbait sortzeko lanbide desberdinen bilgune delako da jendartearen ispilu. Bestela, ezingo luke.

## AZKEN HITZA

### Sinetsi

“Burutik pasa baino lehen ekintzatik pasatzen dena da aktore ona. Jendeari mementoan asmatu dugun testua esaten ari garela sinetsarazi behar diogu. Hastapenetik jendeak onartzen duen gezur bat da antzerkia, eta guk ere gezur hori sinetsi behar dugu, memento oro dena deskubritzen ari bagina bezala antzeztu”.

**Orain arte obra gutxi antzeztu dira mugaren alde bietan. Zergatik?**

Egoera politikoari lotua da, lehenik. Muga fisikoa inposatzeaz gain, jendearen pentsamenduan errotzea lortu dute. Iparraldekoek Hegoaldera joanez Hegoaldekoek ez zutela ulertuko pentsatu dute, eta alderantziz. Guretzat, euskaraz ari garenean, lehen helburueta-rik bat Euskal Herri guztian aritzea da. Beste behin, batzuetan ekintzatik burutik baino lehenago pasa behar dela ohartu gara. Ekin-tza lehenesteak sortzen du uste baino urruna-go joateko aukera. Guk Luhuson egiten dugu lan eta Hameka izeneko egituraren baitan saiatzen gara trukaketa horiek sustatzen. Baina Euskal Herria Iparralde-Hegoalde binomioa baino anitzagoa eta konplexuagoa da, eta zenbaitetan errazagoa da Urruñatik Donostiara joatea Zuberoara baino. Alabaina, proposamenak egin eta berreginez edo Hegoaldeko antzerki zenbait hona gomita-tuz, obra bat bizkaieraz ikusteak interesa duela jabetzen den publiko bat sortzen dela ohartu gara. Ekintzak ditu hausten jendearen baitako mugak.

**Muga horiek hausteko konpainia batzuk bi hizkuntzetan ematen dute obra bera. Zuek obra batzuk frantsesez eta beste batzuk euskaraz ematen dituzue, sekula ez elebitan. Zergatik?**

Euskal antzerkia delako hasieratik bururaino euskaraz pentsatua, sortua eta landua dena. Hizkuntza bat ez da bere hitzetara mugatzen, jendarte baten bizi osoaren adierazle da. Hala, itzulpen soil batera mugatuko bagina, azalekoagoa, hutsalagoa litzateke dena. Gure kasuan hautu kontziente eta politikoa da. Euskaraz ari garenean, frantses askok galde-giten digute zergatik ez dugun frantsesezko itzulpenik egiten, panelen bidez bada ere. Hori egingo bagenu ez genuke euskaraz ikas-teko edo bizitzeko beharrik sortuko. Horrek ez du erran nahi euskal antzerkia ezin dela bere muga politikoetatik at esportatu. Eman dut *Aulki Hutsa* Bordelen, Katalunian... Are gehiago, Bordelen emateko *Aulki Hutsa* itzuli

egin nuen. Baina Frantzian ari nintzen, ez nintzen nire betiko desmartxarekin kontraesanean, ez zen logika merkantila.

### Aktore bera zara euskaraz eta frantsesez?

Beharbada bai, baina nire izaeraren mami edo zelula ezberdinekin antzeztan dut. Frantsesez edo euskaraz aritzea ez da hizkuntzaz aldatzea bakarrik. Esaldi baten egitura ezberdina den bezala, indarra eskatzen duten hitzak ere ezberdinak dira. Nahi ala ez, gure baitako bide ezberdinetatik pasatzen gara hizkuntzaren arabera. Badago alde kontziente bat landu litekeena, baina beste bat adimenak hautatu ez arren barneraino errotzen den nortasunaren alde ezkutua da. Antton Lukuri beti entzun diogu antzerkia ez dela literatura, antzerkia mintzoa dela, eta zaila da agertzea mintzo bati zerk ematen dion berezitasuna. Gauza bera hizkuntza beraren baitan. Zerk egiten du bizkaitar eta baxenafar baten arteko nortasun ezberdintasun hori?

### Zerk egiten du Frantziako eszena nazionaleko antzoki arranditsu edo ostatu ttipienean antzezteko prest egotea?

Ez gaitzeen tronpatu, frantsesez aritzeko gomitatzen gaituzte eszena nazionaleko antzokietara, euskaraz ez gaituzte nahi. Hori hala, gure hautua antzerkia leku guztietan ematea da, leku guztietan eta denentzat. Ez gara kategoria jakin batentzat ari. Horrek lan egiteko manera bat dakar, hogeitaz landu dugun gaitasun bat: autonomia. Laborantzan bezala da, hautatu dezakezu monokulturaren eredua eta artoaren ekoizpenean zentratu baina arazoak sortzean zure ekoizpen osoa pikutara doa. Guk gure ekoizpena dibertsifikatzeko aukera egin dugu, eta saiatzen gara gehienbat gure antzerki salmentetatik bizi-

**“Euskaraz ari garenean, frantses askok galdegiten digute zergatik ez dugun frantsesezko itzulpenik egiten. Hori egingo bagenu ez genuke euskaraz ikasteko edo bizitzeko beharrik sortuko”**

tzen. Horrek kamioi bat ukaitea, harmailak eta argiak garraiatzea, eta pentze lokatzu batean edo antzoki erosoenean antzezteko manera emango dizun sistema autonomoa lantzea eskatzen du. Horregatik diot gure lanbideak lanbide asko exijitzen dituela. Nik, adibidez, kamioia gidatzen dut, konpontzera eramaten... Nire lanaren parte da hori. Konkretuki erranik, emanaldi bat dugunean, egun batez gidatzen duzu, egun batez muntatu, gauean antzeztu, antzerkia bururatzean dena desmuntatu, eta biharamun goizean berriz gidatu. Bi ornez antzezteko bizpahiru lan egun tekniko dituzu. Horregatik ere maite dut ene lana, gustuko dut kamioia hamar orduz gidatzea, muntaketan eskuak zikintzea... Horri esker ez naiz erotzen.

### Hemendik 30 urteren buruan zure burua taula gainean ikusten duzu?

Beste aukerarik izango ote dut? Gure lanbidean, etengabe galdetzen diozu zure buruari zer ostiagatik sartu zaren buru-jate eta arrangura sortzaile zaizun sorkuntza berrian, baina aldi oro sartzen zara. Zaila da uztea, adikzio bat da nonbait. Berriki galdu dugu taldeko lagun bat, eta horren aitzinean dena pikutara bidali edo oraindik hobekiago aritzeko aukerak soilik ikusten dituzu. Hobekiago diodanean, ez naiz kalitate artistikoaz ari, gure buruak eta gure ingurukoen bizitzak hobeki zaintzeaz ari naiz. Beraz, bai, hemendik 30 urtera ene burua taula gainean ikusten dut. Ez dut uste horretan antzerkilariak bereziak garenik. Gure lanak hortaz pentsatzeko aukera ematen digu, besterik ez. Horregatik zatoz galderak pausatzea eta horregatik erantzuten dizkizut, nire buruari pribilegio hori eskaini diodalako. ■



| OTSAILA     | MARTXOA                                                                       | APIRILA                                                                              |
|-------------|-------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------|
| 28 Lekeitio | 1 Elorrio<br>2 Otxandio<br>7 Zumarraga<br>9 Ziburu<br>14 Beasain<br>16 Igorre | 20 Erandio<br>21 Arrigorriaga<br>22 Biarritze<br>28 Ermua<br>30 Agurain              |
|             |                                                                               | 4 Donibane Garazi<br>5 Markina<br>10 Eibar<br>11 Andoain<br>12 Bidarte<br>26 Aulesti |

www.hamlet.kz

# Hezkuntza merkantilizatze- azken urratsa

Derrigorrezko Hezkuntza eredu neoliberalera biratu nahi duen LOMCE legea onartu ostean, unibertsitatea dute orain jomuga: Bolonia prozesuak landaturiko haziari segida emango dio Espainiako Gobernua prestatzen ari den erreformak, hezkuntza merkatuko produktu bilakatu eta pribatizatze bidean.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

Argazkiak: Dani Blanco

ALDAKETA PEDAGOGIKO ONURAGARRIA eka-  
rriko omen zuen Boloniak, homologazioa  
Europako titulazioekin, bikaintasuna goi  
mailako hezkuntzan. Errealitatea da elitea-  
rentzako unibertsitatetik gero eta gertuago  
dagoela egungo eredu, tasak handitu direnez  
matrikulak batez beste %21 garestituta,  
bekak murriztuta, kasik derrigorrezko bihur-  
tu dituzten graduondokoen prezioa izugarri  
igota... Irakaskuntza erabat presentzialak eta  
kreditu sistemak fakultatean sartuta du ikas-  
lea goiz eta arratsalde, enpresa pribatuak  
eskumenak hartzen hasi dira  
unibertsitatean, eta homolo-  
gazioak ateak ireki dizkio  
hezkuntzaren salerosketari.

Ikasle Abertzaleak (IA)  
kolektiboaren iritziz, Bolo-  
niaren atzean unibertsitate  
anglosaxoien eredu finantz-  
ariora hurbiltzeko eta ondo-  
rioz hezkuntza pribatizatzeko  
eta merkaturatzeko helburua dago,  
Europar Batasunaren EU2015 plangintzaren  
baitan. Estrategia horri erantzungo lioke José  
Ignacio Wert Espainiako Hezkuntza ministroa  
prestatzen ari den unibertsitate erreformak  
ere. Ikasturte hau amaitu aurretik aurkeztuko  
duela uste da eta Wertek hautaturiko aditu  
talde baten txostena du abiapuntu eta zimen-  
du: *Espainiako unibertsitate sistemaren kalitatea eta  
eraginkortasuna berritu eta hobetzeko proposamenak*.  
Txostena aztertu dute Ikasle Abertzaleek, aste  
honetan kaleraturiko EU2015 unibertsitateko  
erreforma. Zapalkuntzan sakontzeko bidea liburux-  
kan. Hona adituek proposatutakoaren hainbat  
gako, Hego Euskal Herrian eragina izango

duen unibertsitate erreformak ekarriko duena  
aurreikusteko baliagarri.

## Kanpo ebaluazioen menpe

LOMCEk egiten duen moduan, kanpo eba-  
luazio publiko eta aldizkakoak proposatzen  
dira, “kanpokoak, objektiboak, ekonomikoak  
eta sinpleak”. Ebaluazio hauek egiteko bi  
aukera zehazten dira: agentzia berri bat sor-  
tzea edo ziurrenik aurrera aterako dena,  
ANECA agentzia arduratzea horretaz. Bolo-  
nia planaren oinarriak zedarritu zituen eta

bere baitan enpresa handi  
ugariren interesak ordezk-  
tzen dituen da ANECA,  
hortik atera kontuak zer nola-  
ko irizpideen arabera ebalua-  
tuko dituen unibertsitateak.  
Aurrera ateraz gero, ebalua-  
zio honen garrantzia handia  
izango da, emaitzak publiko-  
ak izateaz gain –unibertsita-

teak beraien artean lehian jartzeaz gain– finan-  
tzazioa ranking horren arabera egingo delako,  
eta ez gehien behar dutenak aintzat hartuta  
–batzuk sarituz eta baliabide gutxien dutenak  
gero eta gehiago hondoratuz edo zuzenean  
desagerraraziz–. Hots, kalifikazio ona lortze  
aldera, ebaluazio horien irizpideak jarraituko  
dituzte unibertsitateek, edukietan nahiz fun-  
tzionamenduan. Eta zein irizpide dira horiek?

## Kalitatea = etekina

Aditu taldeak irakaskuntza eta prestakuntza-  
rekin baino, ikerketa arloarekin lotzen du uni-  
bertsitatearen kalitatea. Eta ikerketek enpre-  
sen interesak zenbat eta egokiago ase, orduan

**LOMCEk bezala, kanpo ebaluazioak  
proposatzen dira: emaitzak  
publikoak lirake eta  
unibertsitateen finantzazioa ranking  
horren arabera egingo litzateke**





Unibertsitate erreforma gauzatzeko Wert ministroaren aditu taldeak prestatu duen txostenaren arabera, unibertsitate bateko ikerketek enpresen interesak zenbat eta egokiago ase, orduan eta hobeto baloratuko da unibertsitate hori.

eta hobeto baloratuko da unibertsitatea: “Diru publikoz finantzatuta, enpresek negozioarako eta etekinak handitzeko behar dituzten ikerketak egiteko unibertsitatea baliatzea proposatzen da, eta horren arabera neurtzea kalitatea, ikerketa horien kopuruaren arabera. Horrek izen bakarra du: merkantilizazioa”, salatu du IAK.

## Gestio pribatua

Unibertsitateen gobernurako, “gardentasuna” eta “profesionalizazioa” eskatzen ditu

txostenak, praktikan gestioa hezkuntza komunitatetik urrunduz eta kudeatzaile pribatuak txertatuz; eta “organoen arrazionalizazioa” ere aldarrikatzen du, praktikan erabaki-organoak kopuruz, tamainaz eta funtzioz murriztuz eta boterea esku gutxitan kontzentratuz. Besteak beste, adituen arabera klausuroa kontsultarako baino ez da izango eta dekanok errektoreak izendatuko ditu zuzenean. Errektorea bera ere –jada ez luke unibertsitate barruko norbait izan beharko– Unibertsitate Kontseiluak erabakiko luke, eta



**INAKIBEREZIARTUA**  
Enbalajeak · Biltegiatzea eta Logistika · Zerra eta eraikuntza



**25 urte baino gehiago paketatze industrialaren sektorean**

Jauregi auzoa, 75 · HERNANI · (Gipuzkoa) · ☎ 943 552 828  
www.inakibereziartua.com · mjm@inakibereziartua.com



**ellaURI**  
HOTELA



**KILO TERDI TXOKOA**  
Kilo t'erdiko txuleta  
Legatz-solomoa plantxan  
(6 pertsona gutxienez, aurretik deituta)

Altzusta 38, 48144 ZEANURI  
+34 946 317 888 | ellaURI.com

*Natura sentitu*





Ikasle Abertzaleek salatu dutenez (ezkerreko irudian, atera duten liburuxka), espezializazioa batik bat graduondo eta masterretan sustatzea da asmoa, baliabide ekonomiko urriagoak dituztenak goi mailako ikasketetatik aldenduz.

kontseilu honetan unibertsitatetik kanpoko jendeak hartuko luke parte –autonomia erki-dego bakoitzeko gobernuak hautaturikoak; “enpresa munduko” jendea eta “pertsona ospetsuak” gomendatzen dituzte adituek—. Txostenak azpimarratzen du errektorea izatea ez dela bateragarria politikan, sindikatuetan edo funtzionaritzan aritzearekin, baina ez du ezer esaten enpresari izateaz, eta fakultate anglosaxoietan ikusi dugu unibertsitateak gobernatzeko kanpoko jendea sartzen joan diren heinean, enpresaburuen esku geratu direla sarri.

## Nahieran hautatutako irakasleak

Irakasleen “desfuntzionarizazioa” proposatzen da eta horretarako, oposizio bidezko hautapen prozesuari berri bat gehitu nahi zaio: unibertsitateak berak irakasle titularrak eta katedratikoak kontratatu ahal izatea –irakasleria-ren %49 horrela hautatu ahal izango litzateke—. Ondorioz, irakasle onenak aukeratzeko unibertsitateak lehian ariko direla dio IAK, eta diru gehien dutenak gailenduko

**Gestioa hezkuntza komunitatetik urrundu eta kudeatzaile pribatuak txertatzea, erabaki-organoak kopuruz, tamainaz eta funtzioz murriztea eta boterea esku gutxitan kontzentratzea sustatzen du txostenak**

direla. Irakasle horiek, gainera, enpresa pribatuaren moduan kontratatu eta kaleratu ahal-ko lirateke eta aukeraketa irizpideak ere ez daude batere garbi: oposizio edo bozka bidezko hautaketa tresnak ginetik kenduta, “dekanoak, ikerlariak, errektoreak eskuz hautatzeko irizpideak proposatzen direnean eta sustatuko dena nazioartean ezagunak diren pertsonak kontratatzea denean, irizpide pertsonalen arabera profil zehatzeko gizonak (bereziki)” ez ote dituzten kontratatuko galde-tzen dio bere buruari ikasleen kolektiboak.

## Finantzazio ez publikoa

Unibertsitateen finantzazio publikoa arriskuan dagoela argudiatuz, bide berriak proposatzen ditu aditu taldeak. Tartean, –berriz ere– unibertsitatetik kanpo dagoen jen-

dez osatutako organoa eratzea, erabaki “sostengarriak, eraginkorrak eta arrazionalak” hartzeko bereziki enpresa arloko ordezkariak hobetsiz. Enpresa munduarekin elkarlana eta finantzazio akordioak lortzea, unibertsitate bakoitzari tasak eta prezioak

## PortAventura ikasgai

FINANTZAZIO beharraren eta dibertsifikazioaren aitzakian, molde disimulatuagoan batzuetan eta ageriago bestetzetan, enpresa pribatuek unibertsitateetako atea gurutzatu dituzte dagoeneko. Ohikoa da kafetegi pribatuak, freskagarri jakinen makinak edota banku sukurtsalak fakultateetan aurkitzea, baita babesletza eta iragarkiak ere pasillo, kirol instalazio, bulego edo testuliburuetan. Eroskik supermerkatua ireki berri du EHÜren Leioako campusean, Liburutegi Nagusiaren eraikinean. ExxonMobil petrolio korporazioak prentsa

askatasunaren inguruko masterra eskaintzen du AEBetako unibertsitate batzuetan, eta 133 ikastetxetako hainbat zerbitzu kudeatzeaz arduratzen den Edison enpresak hezkuntza saioak ematen ditu telebista estatubatuarrean: hango eskolen %40tan ikusten dute saioa, 12 minutu egunero, horietatik bi minutu iragarkiei eskainiak.

Hain urrutira joan gabe, azalean PortAventuraren babesletza daraman *Munduko kulturak* testuliburu landu dute Kataluniako hainbat ikastetxetan: Generalitateak homologatuta, gizarte zientzietan

erabili dute eta kultura maia, azteka, Txina, Polinesia eta Far West jorratzen ditu liburuak, hain juxtu parke tematikoan aurki daitezkeen kulturak. Liburuko argazki batzuk, gainera, PortAventuran ateratakoak dira eta ikasgaia gainditzeko haurrek parkera joan behar izan dute, sarrera eurek ordainduta.

*Endowment* eredu ere arrisku-tsuki ari da ugaritzen: enpresek ikerketa eta ikasketa jakinetan inbertitzen dute, normalean etekina ateratzeko asmoz, esaterako ikerketaren jabetza eskuratuz —edo zati batena—.

arautzeko eskumen handiagoa uztea, ikasleentzat bankuek beka maileguak ugaritzea —eta bekak “bikaintasunaren” arabera banatzea, ez beharraren arabera— edota eraginkorrrak ez diren kostuak saihestea gomendatzen du —praktikan, langile gehiegi dagoela irizten denetan jendea kaleratzea, esaterako—. Hezkuntzaren funtzio sozialari errentagarritasunaren logika gailenduko zaio, azken batean.

### Ikasgai errentagarriak

Titulazio gehiegi omen dagoela-eta, ikasketak sortu, mantendu edo ezabatzeko irizpide nagusietakoa ikasketa horrek “baliabide ekonomikoak atzemateko duen gaitasuna” izango da eta matrikulatuen kopuru gutxienekoak ezarriko dira, titulazio bat eskaini ahal izateko. Hala dio txostenak. Eredu anglosaxoitik eratorritako *edwed chairs* edo izendun katedrak ere proposatzen dituzte, alegia enpresa pribatuek finantzaturiko gradu eta ikasgaiak. Ez da zailegia asmatzea zein ikasketa mota aterako diren aurrera eta zein ez, batez ere kontuan hartuta merkatuarekiko lotura handia izango dutela eduki, praktika nahiz ikerketek. Halaber, campusak espezializatzearen alde eta karrera bera toki ezberdinetan eskaintzearen aurka dago txostena, ikasle eta irakasleen mugikortasuna behartuz. Testuinguru globalizatu horretan, pentsatzekoa da ingelesak garrantzi are handiagoa hartuko duela eta —ikasgaien bikoiztasuna saihestea xede izanik— euskara

**Ikasketak sortu, mantendu edo ezabatzeko irizpide nagusietakoa da ikasketa horrek “baliabide ekonomikoak atzemateko duen gaitasuna”. Enpresa pribatuek gradu eta ikasgaiak finantzatzea ere gomendatzen da**

ez dela egongo lehentasunen artean. Espezializazioa batik bat graduondo eta masterrretan sustatzea da asmoa, beste behin baliabide ekonomiko urriagoak dituztenak goi mailako ikasketetatik aldenduz.

Unibertsitatearen —hezkuntzaren— egiturari berari astindu ederra emango dio erreformak, puntu horiek guztiak —eta beste hainbat— betetzen badira. Behin betiko idatzia oraindik aurkeztu ez duten arren, norabidea zein den argi uzten du txostenak, eta

ondo taxututako plangintzaren barruan kokatzen dute Ikasle Abertzaleek: Zerbitzuen Salerosketarako Akordio Orokorra aipatzen dute liburuxkan. Munduko Merkataritza Erakundean dauden 144 herrialdeetako gobernuen sinatutako akordioa da eta zerbitzu publiko gehienak erregulatzen ditu, tartean hezkuntza eta osasuna.

Finean, oinarritzko zerbitzuak eta zerbitzu publikoak merkatuaren esku uzteko eta privatizazioari atea irekitzeko bidea da hitzarmen hori.

Datorrenari nola aurre egin? Gaizka Azketa IAKo kideak garbi du: “Unibertsitateak daraman neoliberalizazio prozesua azalarazi eta honen aurka borrokatuko dugu, era erakitzaile batean. Fakultatez fakultate desobediencia ekintzak eramango ditugu aurrera martxoan zehar eta M27ko ikasle greba orokorra eta gero hainbat dinamika jarriko ditugu martxan unibertsitateetan, Euskal Eskola Nazionala helburu”. ■





AUZOLAN ESPERIENTZIAK

# Euskal Udalekuetan borondatez eta pasioz

Bernedon, Abaigarren eta Goñin antolatzen diren Euskal Udalekuek ia 50 urte daramatzate haur eta gaztetxoei euskal kultura, naturaren zaintza eta nazio-eraikuntzaren konpromisoa transmititzen. Gainontzeko udalekuek bezala aisialdirako gunea eskaintzen duten arren, badute zerbait berezia: antolatzaile guztien auzolanerako borondatea.

| LIDE HERNANDO |



IKASTOLEN ANTZERA sortu ziren. Ikasturtean zehar euskaraz aritzen ziren ume askok udan ez zuen hainbesteko aukerarik euskaraz mintzatzeko. Hutsune hori betetzeko helburuz elkartu ziren lehen aldiz Barriako monasterioan, hiru asteko egonaldia egiteko. Udalekuek, ikastolek bezala, erlijioan lan egiten zuen jendearen laguntza izan zuten hasieran. Hainbat udara arrakastatsuren ondoren, 1967-1968ko ikasturtean Saturrarana eta Debara aldatu ziren, eta orduan sortu ziren formalki Euskal Udalekuak.

Gaur egun, Urdiratzeko etxea itxi ondoren, hiru eraikin gelditzen dira Euskal Udalekuen baitan: Bernedokoa, Abaigarkoa eta Goñikoa. Etxe bakoitzak izaera eta antolamendu sistema berezkoa duen arren, hasierako xedeek bere horretan jarraitzen dute. Hiru etxeak daude Euskal Herriko natura abera-

tsaz inguraturik, euskara oinarri eta ondo pasatzeko pentsatuak.

“Udaleku guztietakoak zenbatuz, 6-17 urte bitarteko haurrak elkartzen dira udaro etxe hauetan”, dio Oier Peñagarikanok, Goñin hezitzaile. Txanda berean, hiru etxeetan adin bereko haurrak egon ez daitezen saiaten dira, horrela adin jakin bateko haur batek data bat baino gehiago ditu aukeran. Bestalde, txanda bakoitzean 2-3 urteko tartea duten haur eta gaztetxoak elkartzen dira. Udalekuek, adina- ren arabera, 9-15 egun irauten dute.

## Boluntario

Hezitzailerik gabe Euskal Udalekuak ez lirake ezer. “Hezitzaile hitza erabiltzea gustatzen zaigu begirale orde; horrela etxe barruan dauden begirale, sukaldari eta *milo*—etxearen mantenuaren arduradun— guztiak zaku berean sar-

tzen ditugu”, dio Txomin Azpirozek, Bernedoko hezitzaileak. Etxe bakoitzak guztira 120 hezitzaile inguru ditu, udan lau bat txandatan banatzen direnak; denek musu-truk egiten dute lan.

“Antolakuntzaren eskema bat egingo bagenu, goialdean bulegoa eta koordinazio mahaia egongo lirarteke –dio Peñagarikanok–. Bulegoan langile bat dago, Euskal Udalekuetako liberatu bakarra, matrikulazioez, webguneaz edota tramiteez arduratzen dena. Koordinazio mahaia hiru etheen barne-komunikazioaz, elkarlanaz eta propagandaz arduratzen da”.

Etxe bakoitzak bere antolakuntza propioa du. “Abaigarren, adibidez, hezitzaile guztiak asanbladan elkartzen gara urtean zehar, etxearen eta txanda bakoitzaren egoera nolakoa den eztabaidatzeko”, azaldu digu Laida Bengoak, bertako hezitzaileak. Goñin eta Bernedon berriz, normalean talde motor bat egon ohi da, hainbat ardura dituen: etxearen urte osoko mantenua, etxearen propaganda propioa edota udalekuen baloreen transmisioa. “Udako txanda bakoitzean 30 bat hezitzaile baldin badaude, horietatik bi koordinatzaileak izan ohi dira, lantaldeak osatzeaz, hezitzaileak koordinatzeaz eta egunerokoa ondo joateaz arduratzen direnak. Horiek dira etxearen talde motorra osatzen dutenak”, adierazi du Bengoak. “Txanda bakoitzeko koordinatzaileek urteko konpromisoa dute soilik, urtero alda daitezke nahi badute”, gehitu du Peñagarikanok.

## Urte osorako plangintza

Ez pentsa Euskal Udalekuen lana 9-15 eguneko txandetara mugatzen denik. Bileran egiten dituzte ikasturte guztian, aurreko udaldia ixteko eta hurrengoa ondo prestatzeko. “Uda amaitzen denean, etxe bakoitzeko koordinatzaileak elkartzen dira amaitu den urtearen balorazioa egiteko– dio Azpirozek–. Hori eginda, ikasturtea amaitutzat hartzen da, eta hurrengo urtekoa prestatzen hasten gara. Urria eta abendua bitartean ez dugu apenas bilerarik egiten. Urtarrilaren amaierarako, ordean, hurrengo udako txanda bakoitzeko hezitzaileen zerrendek itxita egon behar dute”.

Nola prestatu hurrengo udaldia? Hiru etheen koordinazio mahaia, baita propaganda taldea ere, behin baino gehiagotan biltzen da. Eta berdin txanda bakoitzeko hezitzaileak. “Euskal Udalekuen helburu orokorrak aintzat hartuz, helburu zehatzak betetzen saia-



**Ezkerreko orrian, Bernedoko gazte eta hezitzaileak. Goiko argazkian, Goñikoak, Euskal Herriko mapa irudikatuz.**

tzen gara txanda bakoitzean”, argitu du Peñagarikanok. Egun batean Euskararen Eguna antolatzen dute, Korrika bezalako ekintzak edota euskalki jolasak eginez. Beste egun batean, Naturaren Eguna, inguruaren zaintza transmititzeko edota Zero Zabor ekimenaren funtzionamendua eta azpiegitura handien kalteak azaltzeko. “Bestalde, egunero tertuliak antolatzen ditugu gaztetxoekin, zer moduz doakien galdetzeko, haiei hitza emateko, guk ere haiengandik ikasteko. Azken batean, harreman horizontala eduki nahi dugu haurrekin, bai hitzetan baita jardueretan ere”, gaineratu du Azpirozek.

## Auzolanean

Euskal Udalekuetan, txanda bakoitzean egon behar duen hezitzaile kopuru finkorik ez dago. Horrek esan nahi du, txanda jakin batean behar den arduradun kopurua baino gehiago baldin badago, jardueraren bat hobetzeko edota beste gauza bat gehitzeko erabiltzen dutela. Halaber, Bengoaren arabera, “proiektu honetan parte hartzea guztiz jarduera boluntarioa denez, honetan benetan sinesten duen jendeak eskaintzen du bere burua hezitzaile izateko. Eta jende gehiago behar bada, mimos hautatuko dituzu lagun berri horiek, ez duzu zure herriko pertsonarik alferrena hautatuko udalekuetan debalde lan egiteko”.

Hori baita, ia 50 urte dituen proiektu honek gaur arte iraun izanaren arrazoi nagusietakoa: antolatzen dutenen pasioa eta motibazioa. Hizkuntza euskara izatea, natura maitatzea edota sexuen arteko parekidetasuna errespetatzea ezinbestekoak dira Euskal Udalekuen parte izateko.

Martxoaren 10ean irekiko da aurtengo Euskal Udalekuetan izena emateko epea eta internet bidez egin behar da eskaera: [www.euskaludalekuak.org](http://www.euskaludalekuak.org).







INIGO AZKONA

**Asier  
Blas  
Mendoza**



EHUKO  
IRAKASLEA

## Ukraina

IMAJINA DEZAGUN Varsovian elkarretaratze jendetsua dagoela ALBA elkartearekin akordio bat sinatzeko eskatuz. Babesa ematera Venezuela, Bolivia, Kuba, Ekua-dor eta Errusiako enbaxadoreak eta gobernu kideak doaz. Behin eta berriro errepikatzen dute gobernuaren ez dela demokratikoa (nahiz eta demokrazia indize gehienek kontrakoa esan) eta giza eskubideak ez direla behar bezala errespetatzen ari (nahiz eta polizia beste herrialde batzuetan ohikoak diren gomazko pilotak eta balak ez dituen erabili).

Mobilizatuen artean jende arrunta da nagusi, baina antolakuntza Kubak urteetan subentzionatu dituen GKEtako langileen esku dago batez ere. Azken horiek

baina hauek ez daude hedabideetan, izan ere, Errusiak maneiatzen du munduko agenda mediatikoa. Minsken mobilizazioak egon dira Bielorrusiak ALBArekin sinatutako akordioaren kontra, erlatiboki Varsoviakoak baino handiagoak ziren eta biolentziarik gabekoak, baina noski, hedabideek ez dute atentzio berezirik jarri. Baten batek duda izpirik bazuen, azkenean egunetan AEBetako inteligentzia zerbitzuek errusiar enbaxadore eta herrialde honetako kanpo harremanetarako ministro ordearen arteko elkarriketa bat grabatu dute: ministro ordeak madarikatu egin du ALBA eta garbi utzi du bere herrialdea Poloniako barne arazoetan esku-hartzen ari dela. Zalaparta apur bat sortu da ALBAko herrialdeetan, baina ministro ordeak azkar eskatu dio barkamena ALBAri, ez Poloniari noski.

Protesta eta matxinadarako baldintza objektiboak aspalditik daude Ukrainan. Sobietar Batasuna desagertu ostean herrialde horretako biztanle gehienek pobrezia eta ustelkeria ezagutu dituzte gertutik, beti ere, herriaren aberastasuna lapurtu zuten oligarken mesedetan. 1990eko hamarkada amesgaiztoa izan zen eta XXI. mendean egoera hobetzen hasi bezain laster, gauzak okertu egin ziren mendealdar zale laranjek boterea monopolizatu zuten urteetan. Krisiak gogor kolpatu zuen Ukraina. Nazioarteko Diru Funttsak herrialdea “erreskatatu” eta baldintza ekonomiko gogorrak inposatu zizkion.

Halere, nahiz eta baldintza objektiboak existitu, Ukrainan baldintza subjektiboak ez dira egokienak sakoneko eraldaketara soziala gertatzeko: kontzientzia politiko eraldatzailea ez dago errotua, masa erakundeak falta dira eta herrialdea etnikoki erdibituta dago. Baina, baldintza objektiboak existitzen direnez, jendea kalera ateratzea ez da zaila, baldin eta atsekabe soziala ondo aprobetxatzen jakiten bada. Horretarako beti daude prest mendealdeko inperioko subentzionatzen dituzten GKEak. Ez da mito bat, erreala da eta frogak harnak kontatzen. ■



*Varsoviako Gobernuari leporatzen zaizkion bekatu asko ALBAko herrialdeen artean topa daitezke (eta okerragoak), baina hauek ez daude hedabideetan, izan ere, Errusiak maneiatzen du munduko agenda mediatikoa*

herrialdearen batez besteko soldataren bikoitza irabazi ohi dute. Mobilizazioak baketsuak ziren hasieran, nahiz eta bandera arrazista eta kolaborazionista nazi ugari aurki zitekeen, pixkanaka-pixkanaka biolentoak bilakatu ziren: manifestari batzuek pistolak erabili zituzte, indar paramilitarretan antolatuta dira, eraikin publikoak okupatu eta eskuin muturreko sinboloak jarri zituzte. Zenbait hildako agertu dira, horien artean bi polizia eta Alemaniako eta Holandako eskuin muturreko militante bana. Heriotzen inguruan gauza asko daude argitzeko, batzuk indar parapolizialez mintzo dira, beste batzuk manifestarien inguruko indar paramilitarrez (kanpo esku-hartzea bultzatzeko). Edonola ere, gobernuak ez du salbuespen egoera dekretatu eta behin eta berriro negoziatzeko prest dagoela iragarri du. Varsoviako Gobernuari leporatzen zaizkion bekatu asko ALBAko herrialdeen artean topa daitezke (eta okerragoak),



1492ko Kanporaketaz geroztik  
judutar sefardiek espainiar herritartasuna  
eskatzén ahaliko dute.

(PPk ez du deus aipatu urte berean  
fueratu zituzten musulmanen ondorengoez)

3 milioi bozka  
gehiago  
gure  
kolonietan !

XOLOM,  
iloba !

Ze, eta xoxak  
utzi europako  
estaturik  
ustelenaren  
esku ? ! ? \*



\* Europar Komisiorekin datuak 14/02



Iñaki Mendiguren

ITZULTZAILEA ♦



DANI BLANCO

## (Kutxa) “ergela” ez da telebista

DUELA URTEBETEKO datuak dira: Espainiako Estatuan, batez beste, 4 ordu pasatxo ikusten omen da telebista egunean eta biztanleko, eta krisiarekin kontsumo horrek nabarmen egin omen du gora. Estrategia burutsua langabeziatik azkar irteteko!

Telebistan programa onak badira, bai bertoko kateetan eta bai kanpokoetan, eta ez dut ukatuko funtzio positiborik bete dezakeenik (besteak beste, hizkuntzak edo beste gai batzuk ikasteko, eta abar). Baina begi-bistakoa da merke-zurrean ere jenero asko eskaintzen duela. Oro har, gaur egungo telebistaren funtzionamenduaz eta guran duen eraginaz jakitun izan beharko genuke, kontsumitzen duguna nola digeritu jakiteko.

Pierre Bourdieu frantziar soziologoak badu liburutxo bat interesgarria: *Sur la télévision, suivi de L'emprise du journalisme* (Sobre la televisión, gatzelaniaz).

Era askotako zentsura ikusezinaz mintzo da, hutsalke-riaz, prentsa idatzian duen eraginaz, ezartzen duen urgentsiaz eta *fast thinking* delakoaz, entzule-indizeen diktaturaz, eta abar.

Horren irakurketak ez badizue telebistarekin kontuz ibiltzeko gogoaz sortzen, hona hemen gizonontzat, edo gizonekin familia ugaria izan nahi duzuen emakumeontzat, beste arrazoi sendo bat. *Harvard School of Public Health* egindako azterketa baten arabera (Europa

Press 2013-02-05), telebistaren aurrean ordu asko ematen dituztenek %44 espermatozoide gutxiago omen dute asteen 15 orduz ariketa fisikoa egiten dutenek baino. Arrazoiak ez da zehazki ezagutzen, baina hipotesien artean eskrotoaren tenperatura igotzea dago, edo bizimodu sedentarioak estresa areagotzea. Beraz, itzultzaile edo antzeko lanbidedunak izan eta gainera TB asko ikusten baduzue, arrisku potoloa. Nik neuk, lehenengo

saihestu ezin eta badaezpada TB gutxi ikusten dut, eta ez, egia esan, giza haziaren kalitatea zaintzea lehen-tasunen artean dudalako.

Txantxak alde batera, benetan serio egin beharko genuke gogoeta TBren inbasio basatiari bide ematen dion gure jokaera zentzugabeaz: edozein tabernataraz lagunekin joan eta, zuen elkarrizketaren gainetik eta nahitaez batzuen begirada lapurtuz, ia beti telebista bat izango duzue (eta

barra luzea bada, bi); hiruzpalau jatetxetatik sartu orduko irtenak gara menuan ezinbestekoa zelako telebista ikustea; bi aldiz behintzat gertatu zait gonbidatuta etxe batera bisitan joan, egongelan elkartu eta TB marmarka jasan behar izatea; eta zer zentzu du elkarte gastronomikoetan lagun-taldeak afaltzeko bildu eta telebista piztuta izateak? Nola ergeldu gara horrenbestearaino? ■



*Telebistaren funtzionamenduaz eta guran duen eraginaz jakitun izan beharko genuke, kontsumitzen duguna nola digeritu jakiteko*

DANI BLANCO



**Kattalin Miner**



KAZETARIA

## “Gure” gorputza?

ESKANDALUA iruditzen zaigu abortatu ahal izateko psikiatra batzuen baimena eduki behar izatea. Ordea, ez gara hainbeste harritzen ginekologoak hormona bonbak gomendatzen dizkigunean antisorgailu gisa: grano asko dugulako edo ez dugulako hilerokorik edo bularretako mina dugulako.

Abortuaren defentsan, sarri diogu gure gorputzen gainean erabakitzeari buruz ari garela, zentzu zabalean. Hau diogu, argi dugulako gure gorputzen gain gutxi erabakitzen dugula sarri.

Esaterako, nahi dugun generotan bizitzeko hautua egiten dugunean —transsexualitateaz ari naiz—, bukaezina, erasokorra,

eskizoidea, binarista eta ilegala behar lukeen prozesu psikiatriko batetik pasatu behar izaten dugu, zer eta, emakumeoi arrazoi minimoz lehenago aipatu ditugun hormona bonba horiek berak (edo testosterona) hartu ahal izateko.

Kontrol horrek asko du genero kontrolatik eta beraz, gure gorputzen gainean erabakitzeak eskubidea ez da abortura mugatzen. Izan ere, gure gorputzen gainean erabakitzeak eskubidea, hain medikalizatua, hain instituzionalizatua eta hain katolizatua dagoen gorputz hori askatzeko borroka da. ■





**Ignazio Aiestaran Uriz**

♦ ARGIAKO BLOGARIA

## Aiher eta bihotz

INTSUMISIOAREN GARAIAIN belau-naldi gazte batek estatuen logika militarista azpiratu zuen. Iruñeko intsumituen artean, 21 urte zituelarik, Asier atxilotu eta espetxeratu zuten, baita bere anaia nagusia ere, espainiar armadan soldadutzari uko egiteagatik.

Asierren aitona, gudaria izanik, 1937an preso sartu zuten, eta esklabo lanetatik ihesi, bukaeran, 41 urterekin, Venezuelan hil zen, EAJko arduradun izan ondoren. Demokrazian aitonaren semea, Asierren aita, atxilotu eta 18/98 prozesuan 49 urteko kartzela zigorra eskatu zuten harentzat, *Egin* egunkariko administrazio kontseiluan parte hartzeagatik. Ez zuen zigorrik bete, giltzapean sartu baino lehen bihotzak jota hil baitzen, 70 urte zituela.

Asierren lagunak, Aitorrek, gertakizun horiek laburbildu ditu dokumental batean. Aitor Merino eta bere arreba, Amaia, film horren zuzendari eta arduradunak dira, oztopo handiz eginga, Espainiako zinema-areto askotan eta hainbat komunikabidetan terrorismoaren apologiatzat jo dutelako. Aitor eta Amaiak erantzukizun handiko lana egin dute, zintzotasun gardenez eta eskuzabaltasun sakonez.

Aiherrak aiher, Aitor eta Asierren bideak aldendu ziren –bata Madrilén, bertzea Nafarroan–, beren laguntasuna gutxitu gabe. Hala ere, egun batean Aitorri gutun bat heldu zitzaion, non Asierrek aitortu zion ETAKo kidea zela. Gero bertze sufrimendu eta zorigaitzo anitz jin ziren, eta hortik jaio ziren bi galderak Aitorrentzat: nola azaldu Madrilgo lagunei erakunde horren kide batekin zuen adiskidetasuna? Nola ulertarazi zerk bultzatu zuen erabaki hori hartzera, Aitorri ere konprenitzea kostatzen zitzaionean?

Agian galderak ez dira pelikulan erantzuten, baina ez merinotarren lan zinematografikoarengatik. Indarkeria bete-betean agertzen denean, hitzek eta artelanez ez dute irtenbide errazik. Ildo horretan, bi une goren dira filmean. Bata Iruñeko *Ongi etorria*, Zumalakarregiren Atean, non Aitorren komentarioetan sumatzen dugun zergatik ez den aise logika militarra onartzea. Bigarrena, erabat hunkigarria, urte zaharreko familia afaria da, non Asierren amaren berbek gogorazten dizkiguten intsumisioaren garaia eta indarkeriarekiko lekurik eza herri honen bihotzean.

Filma ikusita, “Odiseo izeneko gudari armatu baten erretratua” begiesteko aukera izan dut, Oteizaren eskultura da. Maiz bisitatzen dut, Espainiako erregearen, Felipe II.aren, erranetara eraikitako gotorleku militarrean. Oraindik ez da inor ausartu adierazten eskultura hau terrorismoaren apologia dela, baina Iruñeko udalak informazio publikoetan “armatu” hitza ezabatu du, artelan honen historia manipulatuz. Odiseo gudari hau beltzez margotutako altzairuz eginga dago, xaflak soldatu ondoren, kutxa huts bat eratu arte. Haatik, gudari-eskultura horretan benetako indarra ez datza metalezko armaduran, txapen arteko hutsuneen jokoan baizik, non espazioa husten eta irekitzen den. Tartearen espazioan Pardines eta Etxebarrieta, Hipercor eta Vic, Lasa eta Zabala, *Pertur* eta *Yoyes* ikusten ditut, baita Asier eta Aitorren harremanaren lekua ere.

Odiseo hau bizirik dagoenez, eskulturaren hutsuneak handituz doaz. Azken egunotan hutsarte berri bat ireki zaio kutxa metafisiko honi, Arkaitz Bellonena. Aiher eta bihotzaren potret iluna. ■



## IRITZIAREN LEIHOA

### BERTSO BERRIAK

Zer uste duzue gutaz?



XDZ

**Sustrai Colina**



**Doinua:** Aita jainkoak egin banindu.

Peru, Stein, erantzungo dizkiguzue gure buruari pausatzera ausartzen ez garen galderak?

Zer diozue barkazioaz, kondenez, damuaz, kulpaz? Hipoteketan preso dagoen gure askapen burrukaz? Ez ote dugu kristau zintzo bat estaltzen larruzko txupaz? Inoiz min hartzen ote duzue? Zer uste duzue gutaz?

Zer diozue manifestapen isil bateko oihutaz? Herri Harresi nekatu baten kolpe arteko musutaz? Zer diozue Canoren Twist ta Berri Txarrak-en kantutaz? Inoiz harrotzen ote zarete? Zer uste duzue gutaz?

Zer diozue mugarik gabe zuritzen den Larrun puntaz? Tren geltokian falta direnen zain pasatako ordutaz? Zer diozue gure bizitzaz, izateaz eta look-az? Ta guk zuetaz uste duguna uste al duzue gutaz? ■

(Hendaian, 2014-02-08)


Sorta osorik argia.com-en, Mikel Asurmendi-  
ren Katebegia blogean.





Joxerra Garzia

♦ IDAZLEA



DANI BLANCO

## Zentzu erantsiaren zerga(tia)

UMETAKO ARGAZKIAK: denera, ez dut uste dozena batera iritsiko direnik nireak. Gaztetakoak, beste horrenbeste, pare bat gehiago beharbada. Gutxi ez ezik, kaxkarrak: urrutiegitik hartuak, gaizki laukiratu eta okerrago fokatuak. Zorionez: hartara nire baitan geratzen baita hortik aurrerakoa, nahi bezala irudika dezadan izan nintzen umea, nerabea, gaztea. Edo izan ez nintzena baina izatea desio nukeena. Ez irudikoa, irudimenekoa baizik. Benetakoa, alegia.

Gure garaiotako ezaugarri behinenetakoa dela esango nuke, une bakoitza bere argazkian zintzilikatze joera dontsu hori: “Hona zu, jaio eta bost segundora; horra zure lehen negarraldian; hara, aurreneko putza bota ostetxokoa...”. Aspaldian ikusi dudak filmik onenean (*La grande bellezza*, nik *Edertasun latza* itzuliko nukeena)

artista baten erakusketa

agertzen da. Jaio zenean, aita ekin zion berari egunero argazki bat ateratzeari, eta gero artistak berak jarraitu zuen bere buruari egunero argazki bat ateratzen. Atera kontu: artistak 30 urte zituela jota, hamaika mila argazki, gutxi-asko.

Umeak eta uneak. Ezin bere kabuz ibiltzen utzi, ez batzuei ez besteei. Jardunbide naturalean, denborak bihurtzen du umea heldu, eta une jakin bat gogoangarri. Denborak, ez argazkiak. Rubert de Ventós filosofo handi eta maixu kuttunak ohi bezain zorrotz dioenez, horixe da gure garai biguin-higuinotako sintomarik kezkarrienetakoa: ezin dugula ezer (gauza, une, ideia, sentipenik) bere horretan, gordin (hitzaren saldan egosi gabe) irentsi. Tira: ezin dugula, edo ez garela ausartzen.

Horregatik ezartzen diogu gauza, une, ideia eta sentipen bakoitzari, BEZ halako bat bailitzan, bere zentzu erantsia, inor ez

dadin deskuidatu, gero, interpretazio okerrik egitera, edo, bestela esanda, inor ez dadin bere kabuz pentsatzera ausartu.

Baina bada argazkiaren zentzu erantsia ezartzeko aitzakian una zapuztea baino okerragorik: ateratzen den unean berean argazkia ikusi behar deitoragarri hori: “O, begira zeinen polit ageri garen hemen!”. Horrela egindako argazkiak, bertan ikusi eta artxibatu egin ohi dira, sekula berriz ez ikusteko karpetan sarri. Gaurko teknologiei esker, nahi izanez gero berreskura daitezke, noski, argazkiok, baina nork nahiko du berreskuratu argazkia ateratzearren oharkabean alferrik galdu zitzaizkion uneetako argazkirik?

Instantean egin daitekeena geroko uztearen arriskuez mintzatzea barkagarria zatekeen hamazazpigarren mendean. Gure denboran, ordea, arras bestelakoa da arriskua, eta estimatuko nuke *Axular* berri bat, berehala egin litekeen guztia berehala egitearen arriskuez ohartaraziko ligitkeena.

*Axular*ren Gero argitaratu baino bi mila urte lehenago, hor nonbait, bizi izan zen Platon, eta hark ere idatzi zuen hemen harira datorren pasarte bat, ipuin gisakoa: idazketa alfabetikoa asmatu zuenak enperadorearengana jo omen zuen sari eske, bere asmakariak giza oroimena izugarri handituko zuela argudiatuz. Enperadoreak, baina, hil arteko zigorra ezarri omen zion, bere ustez asmakari horrek indartu ez baizik erabat ahulduko zuelako giza memoria, gizakia- ren baitatik kanpoko euskarri batera aldatuta.

Platon eta *Axular*, biak izan ziren, bakoitza bere erara, itzaletan adituak. *Axular*, berea galduta, itzal bila beti; Platon, aldiz, itzaletan galduta, gauzak non aurkituko. Baina biek zekiten gauzak eta itzalak bereizten. Gu, berriz, hemen gabiltza, gauzen itzalei

argazkia egiteak gauzon jabe bihurtzen gaituelakoan, harro bezain putz. ■



Antton Olariaga



# euskal kulturaren urtekaria

# 2013



- Urteko hamar gertaera esanguratsuak
- Kulturaren esparru bakoitzean jazotakoak, sailez sail
- Azken hilabeteetako adierazpenik esanguratsuenak
- Euskal kultur arloko joeren aurrerapena
- Datu eta estatistika interesgarriak
- Bukaeran, gida praktikoa, kultur jardueretako pertsona eta taldeekin harremanetan jartzeko kontaktu bideekin

## ESKURA EZAZU

☎ 943 37 15 45  
[argia.com/denda](http://argia.com/denda)  
[denda@argia.com](mailto:denda@argia.com)



# Azken migrazioa multikulturalismoaren aitabitxiarentzat

Stuart Hall kultur teorialari eta soziologo jamaikarra hil zen joan den astean.  
82 urte zituen eta 1997tik zegoen unibertsitate irakaskuntzatik erretirata.  
Haren lanek eragin nabarmena izan dute XX. mendeko ikasketa kulturalen garapenean.

| GORKA BEREZIARTUA MITXELENA |

1951N IRITSI ZEN Britainia Handira Jamaikatik eta bidaia horrek bizitza osorako ekipajea eman zion: migrazioaren esperientzia. Stuart Hall posizio on xamarrean zegoen familia bateko seme –aita United Fruit konpainiako kontabilitate buru izan zen–, XX. mende erdialdean Karibeko irlatik Erresuma Batua aldatu zen gazte jamaikar multzo handiko kide zen.

Eskola britainiarra jaso zuen sorterrian, baina ez zen erabat eroso ingelesaren artean, “arrotz ezagun” gisa imajinatzen zuen bere burua. Eta horrek bere lan teorikoan berebiziko eragina izan zuen. Imanol Galfarsoro Leedseko unibertsitateko irakasle eta *Lapiko Kritikoa* agerkari digitaleko kideak azaldu du: “Bere esperientzia migrariak halabeharrezko eragina du ‘diaspora’ nozioari esanahi berriak emateko orduan. Hallen arabera, mundu modernoan identitatea etengabe dago erai-kuntzan. Identitatea joko zabal eta konplexua da eta inoiz ez dago guttiz osatuta”.

Hallek, hortaz, biak zeramatzan migratzailearen mailetan, zama eta oparia: sorterriarren eta bizileku berriaren arteko harremanak negoziatzeko “kontzientzia bikoitza” gartzeko premia –Galfarsorok W. E. B. Du Bois soziologo estatubatuarra aipatuz dioen moduan–, eta prozesu hori inoiz bururaino eramango ez zuela jakiteak ematen zion zabaltasuna.

## Birminghameko ikasketa kulturalak

*New Left Review* agerkari ezkertiarren sortzaileetakoa izan zen eta Britainia Handiko intelektual gailenetakoa. Josu Amezagaga EHUKo irakasleak Birminghameko Centre for Contemporary Cultural Studies (CCCS) ikertegiko

figura garrantzitsuenetakotzat jo du –1972an zentro horretako zuzendari izendatu zuten Hall–. Frankfurteko eskolarekin batera, ikasketak kulturalen azken hamarkadetakoko garapenean funtsezko gunea izan da CCCS. Bien arteko aldea zera da, Amezagaren arabera: “Frankfurteko eskola goi mailako arte eta kulturaren azterketan aritu zen gehien bat eta Birminghamekoa berriz, herri kulturaren”.

Estatus gutxi daukaten forma kulturalak aztergai serioztat hartu eta hariak lotuz, politikarekin eta boterearekin duten harremana zein den ikertzea hartu zuten helburu ikasketak kultural britainiarren sustatzaileek. Puntu komun garrantzitsua izan zuten Frankfurteko teorialariek: “Bi eskolek bat egiten dute gizartearen inguruko ikuspegi kritikoan”, Amezagak azaldu duenez. Birminghameko ikerlarien lanak oihartzun zabalagoa izan zuten munduan ingelesez jardun zutelako; eta aldiz, Alemaniako teorialarien lan esanguratsu zenbait berandu arte ez ziren beste hizkuntzetan itzulita argitaratu.

Amezagak seinatu du ondorengo hamarkadetan Hallen eta inguruko ildotik abiatuta zenbait egile “postmodernismo hutsalean” erori direla, baina uste du Ingalaterran lortu dutela zorroztasun kritikoari eustea.

## Thatcherismoari kritika

Kultura eta identitatearen inguruko auzietan murgiltzeaz gain, Hall bizi zuen garaiko politikaren analisisan ere aritu zen. “Antologikoa” da Galfarsororen ustez Margaret Thatcher Erresuma Batuko lehen ministroaren oinarri ideologikoei egin zien kritika.

Aretxabaletako irakasleak azaldu du pentsalari jamaikararen arabera zein zen politi-



Otsailaren 10ean hil zen Stuart Hall, ikasketa kultural britainiarren figura ezinbestekoa.

kari kontserbadoreak ekarritako berritasuna: “Burutzen duen konbinaketan datza: nola batzen dituen gizabanako librearen eta merkatu librearen doktrina neo-liberalak ohiko Tory kontserbadorearen ikusbideekin: komunitate ‘organikoa’-ren zentzua, betiko balioetara itzuli beharra, tradizioa eta errespektabilitatearen filosofiak, patriarkatua (emakumeen ohiko betebeharra familian), ingelestasuna nazioaren erdigune gisa...”.

Nola uztartzen ziren baina horrelako balo-reak geroz eta multikulturalagoa bihurtzen ari zen garaiko Erresuma Batuko gizartearekin? Antonio Gramsci teoriarari marxista italiararren “artikulazio” kontzeptua baliatuz esplikatu zuten Hallek Thatcherismoaren funtsezko operazio ideologikoa: “Kontzeptu giltzarria hemen ez da koherentzia”, Galfarsorok dioenez. “Tatcherrek bi pentsamendu kontrajarri *artikulatu* zituen batasun itxura sinesgarria eskainiz, arrakastaz. Hori da hegemonia. Artikulazio hegemonikoa”.

### Eta Euskal Herrian?

Nolakoa izan da Stuart Hallen eragina Euskal Herriko jarduera akademikoan? Amezagaren ustez garrantzia hartzen ari da. Duela bi aste aurkeztu zen Josu Larrinagaren baita (*Ttakun eta scratch*) jarri du adibide gisa, baita aurki Koldo Díaz Bizkarguenaga bilbotarrak irakurriko duen *FaceGuk* tesia ere. “Hall behin baino gehiagotan aipatzen da bietan”.

Gurean marxismo klasikoago bat nagusi izan ez ote den galdetu zaionean, EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien fakultateko irakasleak dio balitekeela, baina Birminghametik gurean aplikagarriak ziren nozioak hartu izan direla. “Kontua da hizkuntza bezalako gaiak, adibidez, ez dituztela hainbeste aztertu”.

Hallek ikasketa kulturalen alorrean egindako ekarpenaz hizketan, Euskal Herrian alor horretako departamentu unibertsitariorik ez dagoelako arrangura agertu du Galfarsorok. Teorialari jamaikarraren heriotzaren berri ematen duen ARGIA.COMeko albistearen iruzkinen atalean iritziak elkartrukatu dituzte Amezagak eta berak auzi horri buruz: EHUko irakasleak uste du ikerketa kulturalak presente direla Euskal Herrian, “nahiz eta izen bereko sailik ez dugun”. Eta galdetu du: “Izan beharko genuke? Ez dakit, lehenik ondo zehaztu beharko litzateke ‘*Cultural Studies*’ zer diren, izen horren azpian anabasa handia baitago. Bestetik, ezin dugu esan Euskal Herrian kultura gutxi ikertu denik, ikuspegi kritikoz gainera”.

Galfarsoro ados dago ikasketa kulturalen alorreko lan ugari plazaratzen direla esatean, eta zalantza agertu du berak ere horiek bateratzeko aukerari dagokionez. CCCS euskaldunak itxaron egin beharko duela dirudi beraz. ■





# Muelle 3n, programazio formula berrien bila

Muelle 3 dantza eskolaren baitan, Horman Poster, Olatz de Andres eta Ruemania konpainiek komunikazio egitura bat osatu dute. Dantza garaikideak publiko zabalera iristeko dituen oztopoak gainditu nahi dituzte elkarrekin. Matxalen de Pedro (Horman Poster), Olatz de Andres eta Maria Ibarretxe (Ruemania) dantzariak eman dizkigute azalpenak, baita David Aldai egitura berriko banaketa eta komunikazio arduradunak ere.

| MYRIAM GARZIA |

RUEMANIA taldea 2008an sortu zen. Maria Ibarretxe, Izaskun Santamaria, Alaitz Arenzana, Jorge Lastra eta David Aldai dantzariak osatzen dute kolektiboa. “Zinema mundutik gatoz eta zinemagintza eta arte eszenikoak bilduz, gure lanetan bidaia bat proposatzen diogu publikoari” dio Maria Ibarretxek. Bost muntaiatan batera ari dira lanean, besteak beste, *Apunteak* deiturikoarekin, non zinemarako joera aski nabarmena den. “Eszenan hainbat plano daude, eta ikusleak aukeratzen du non jarri begirada, kamararekin ari balitz bezala” jarraitu du. Publikoa, kontatzen duten istorioen protagonista izatea nahi luke Ruemaniakoek: “Azken finean, gure lana komunikazioan oinarritzen da eta ez baduzu nori zuzendu, lanek ez du zentzurik”.

Matxalen de Pedro (Horman Poster) bat dator Maria Ibarretxerekin. “Uste denaren kontra, ikuslea ez da inoiz elementu pasiboa. Eszenaren eta publikoaren arteko harreman hori estuagoa edo urrunagoa izango da ikus-kizunaren arabera. Mutur bien artean aukera asko dago, baina publikoaren jarrera beti da garrantzitsua”, nabarmendu digu Matxalen de Pedrok. Kutxa beltzaren laugarren horma izan daiteke eszena, eta deuseztu egin nahi dute dantzariok. “*Iragan Perfektoa* lanean, adibidez, laugarren hormarik ez dago, argiak piztuta daude eta publikoaren aurpegiak eta erreakzioak ikus ditzakegu”. Horman Poster taldearen lan berrienean, *Magia Sinpatikoa* deiturikoan, Matxalen de Pedro, Igor de Quadra eta Mbaye Sene dantzari senegaldarra mimoren edota pierrot figuran murgiltzen dira. De Pedrok azaldu digunez, “mimesiak bide asko zabaltzen dizkizu, eta horietako bat bizirau-

penari lotzea nahi genuen. Etorkinak hona heltzean jasaten duen akulturalizazioan sakondu nahi izan dugu eta horretarako, Mbaye dantzariarengana jo dugu, dantza afrikar eskolak ematen baititu Muelle 3n”. Egunotan ekin diete entseguak.

Komunikaziorako lan talde honen hirugarren kidea Olatz de Andres dugu. Pozik agertu zaigu, Madrilgo Lehiaketa Koreografikoaren lehen saria irabazi baitute *Privolva Landing* lanari esker. Miarritzeko Malandain Balletak gonbidatuta, Grenobleko (Frantzia) dantza jaialdian parte hartzeko aukera ere izan zuten. Olatz de Andresen dantza konpainian lantzen ari diren obrak *Medusa Begirada* du izenburua. “Medusak begiradaren bidez mugimendua gelditzeko duen gaitasuna landuko dugu hiru dantzariok, eta mitoek gaurkotzeko duten ahalmena ere nabarmenduko dugu”, azaldu digu de Andresek. Aurtengo BAD jaialdian estreinatzeko asmoa azaldu digu.

## Kudeaketa modu berrien premia

Nola kudeatu daiteke konpainia? Nora jo? Bakarka egin beharreko bidea al da? Nola heldu programatzailer eta espazio publikoetara? Nola bideratu?

Galdera horiei erantzuna bilatzeko asmoz, David Aldai jarri dute Komunikazio eta Banaketa arduradun. Matxalen de Pedrok dioenez, “sortzaileak ezin du banaketa eta komunikazio lana egin, aski baitu berearekin. Horregatik, horrelako figura bat baliatu nahi izan dugu”.

Olatz de Andres dantzariak bere esperientzia du hizpide. “Jaialdi eta lehiaketatan parte hartzeak berez ez du garrantzi handirik, dantzak dakarren lanari dagokionez, baina zirkui-



to eta areto sareetarako bidea errazten du. Espazioak partekatzea beharrezkoa da, sortzaileen eta programatzaileen arteko elkar-  
tzea zaila delako, ez da ohikoa”.

Ruemaniako Maria Ibarretxek horrela laburbiltzen du harreman konplexu hau: “Sortzaileok programatzailearen beharra dugu eta programatzaileak sortzailea behar du. Baina askotan bien arteko lubakia handia da. Zubi lana egitea beharrezkoa dugu”.

Ibarretxe 2007tik ari da lanean Belgikan, hango dantza konpainietan. Bere ustez, bertako konpainiak kanpora ateratzea kanpoko bertara ekartzea bezain zaila da. “Zazpi urte daramatzat atzerrian lanean eta behin besterik ez naute programatu Bilbon. Argi dago Belgika arte eszenikoen hiriburua dela egun, eta halaber, guk estatu periferiko batean lan

**Matxalen de Pedro,  
Igor de Quadra,  
Olatz de Andres,  
Maria Ibarretxe eta  
David Aldai.  
Azken honek  
Muelle 3 aretora  
seinalatzen du.**

egiten dugula, arte eszenikoez ari bagara behintzat”.

Publikoa hezitu beharra dagoela uste dute dantzari hauek, eta “lan hori konpainiak berak” egin dezakeela. Zubi lana egin nahi dute, beraz, lerrootara ekarri ditugun hiru konpainiok, gertuko testuinguruan, baina baita kanpora ateratzeko ere. Ez dute ohiko banaketa lana egin nahi, plazaratzeko formula berriak asmatu baizik, eta hala, elkarlanean oinarritutako komunikazio lana egitea erabaki zuten, norberari ez ezik ondokoari ere begiratzea, bakarrik ez egoteko eta elkarrekin aurrera egiteko. “Ateak ireki nahi dizkiogu hiru kolekti-  
boei, eta bidea programazio formula berriak asmatzea dela iruditzen zaigu”. ■





# KUADRILLA ARTEKOAN

## ESKAILERARIK GABE:

## EZ TXAPELDUNIK

## EZ KANPORATURIK

[www.bertsozale.com/araba](http://www.bertsozale.com/araba)



otsailak 18-apirilak 5





# Partiturak osatzeko editorea sareratu du Tirikitraukik

Solfeorik gabe erakusten den eskoletako metodoa du oinarri on-line editore honek, eta edonoren eskura jarri du sortzaileak, Tirikitrauki musika-dendak, bere webgunean. Nork bere partiturak sortzeko, norberak sortutakoa sarean erabilgarri uzteko, aukeran.

| GARBINE UBEDA GOIKOETXEA |

MUSIKAN, klasikoak eta tradizionalak nekez egin ohi dute bide bera. Joera hori instrumentu bati aplikatzen bazaio –demagun trikitiari, biolinari edo gitarrari–, berori erakusteko, transmititzeko edo sozializatzeko eratan ikusiko ditugu bataren eta bestearen arteko aldeak.

Trikitiak, oraintsu musika eskoletara heldu zenetik, dagoeneko bi moduak eskaintzen dizkio bidea urratu nahi duenari. Klasikoak, irakaskuntza arautuan eskaintzen denak, solfeo du funtsa, eta instrumentua jotzen ikasi nahi duenak hari heldu behar dio hasteko eta behin. Modu tradizionalak –mundu osoan zabaldiena musika-tresna diatonikoetan– garrantzi handia ematen dio belarriari, eta solfeo izpirik jakin behar izan gabe, sistema zifratu sofistikatu xamar baten bidez ematen zaizkio ikasleari musika-tresna jotzen hasteko irakaspenak. Zentrook, eskola sortu duten trikitilarien ingurumarian eratu izan dira usu, eta pertsonalagoak dira irakasterakoan.

Ez da horren aspaldiko kontua irakaslea eta ikaslea aurrez aurre jarri, eta bata besteari segika ikasten zueneko garaia. Elgeta (1906-1964) izan genuen soinu jotzen irakasteko lanak hartu zituen lehen trikitilari profesionala. Besterik ere behar zela konturatu eta idatzizko metodoa bilatzen hasitako lehenengoetakoa, berriz, Villabonako Martin izan zen. Halaxe hasi ziren apurka biribilak –hauspoa eragiteko moduaren arabera finak edo lodiak–, zenbakiak –sakatu beharreko teklaren adierazle–, puntuak –tekla sakatu behar duen hatza zein den argitzen dute–, azpi-indize eta goi-indizeak –sakatu beharreko tekla ezkerrekoa edo eskuinekoa den–, eta beste hainbat ikur baliatzen partiturak osatzeko.

Partiturak sortzeko sistema zifratua bai, beraz, baina eskuzkoa, papera eta erregela hartu eta norberak landu beharrekoa. Ausar-tenek, Photoshop, Freehand edo antzeko



**Amaia Orea eta Juanjo Manterola, Tirikitrauki musika-dendakoak. Haien ekimenez asmatu du lametzak trikitirako partiturak sortzeko editorea.**


irudi programak baliatu izan dituzte ordenagailuan, baina eskuz nahiz ordenagailuz izan, partitura bakoitza lantzeko orduak eta orduak emanez, betiere.

Garai digitaletara egokitzeko beharraz oharturik, horra Tirikitrauki musika-dendak eman berri duen pausoa: partiturak idazteko editore librea, lametza Interaktiboak garatua. Word programak idazteko balio digun bezala, erreminta horrek tresna diatonikorako partiturak erraz eta eroso sortzeko balio du. Behin osatuta, sortzaileak beretzat jaso dezake edo sarean ere utzi, besteentzat erabilgarri.

Informatikoki programatzeko, hutsetik abiatu zen Julen Irazoki: “bila aritu nintzen han eta hemen, baina ez nuen Tirikitraukiren tankerara egokituko zen ezer aurkitu inon. Bertzalde, tresna jotzeko metodoa ez da bat eta bera, eta tokian tokiko aldaerak ditu. Urtebete ko lana izan da, baina ederra, erabili ahala balioa handituko duena”. ■







### Helduen Literatura

*Zoperna jenerala*  
Luis Berrizbeitia

Pamiela, 1987

## Libreak eta lotuak

POESIA beti, ez dakit mailua, baina zapata zolan iltzea zaigunoi, xamur egiten zaizkigu genero narratiboagoak, ez hain minbera. Horrexegatik, poeta izaera ezagun izanagatik ere, aitor daiteke itzulpenen bitartez ezagutu izan dudala Luis Berrizbeitia –itzulpenen bitartez itzultzaile bat ezagutzen ahal den heinean, noski–. Hau idazten duenaren heziketa sentimentalean ezinbestekoa izan da, adibidez, *Gauza guztien zergatia*, Quim Monzó katalanarena; abadinarrak itzuli zuen. Berdin, geroxeago, Roald Dahl, eta hemendik eta handik hartu zizkion *Ixtorio hautatuak*. Berriki euskaratu duena izango da *Basamortua*, J.M.G. Le Clezio Nobel sarituarena.

Nagiak ere gainetik kentzeko daude-eta, azken buruan, ausartu naiz Berrizbeitia poetarekin. Aukeratu behar eta jo dut estreinakora, 87ko *Zoperna jenerala* bildumara. Baina lasai asko izan zitekeen berdin *Eremu karroinduak*, olinpikoa, 92koa. Irakurlerik mendreenak atsegin hartuko du, orobat, Koldo Izagirrek apailatu zion kaierarekin –bada zerbait, XX. mendeko berrogeietarik bat–. Ezen, bateko besteko, poemek baitute elkarren artean lokarria, “denen azpian epaixkaz eta gorderik bezala dagoen sentsibildade batean”. Ez da erraz definitzen: irudien dotorezia, tonuaren oreka, unibertsaltasun gogoa, tradizio kulturen eta koblakaritzaren baliatzea egozten dio hitzaurrean Izagirrek. Gehituko genuke hizkerarekiko xera, herriaren literaturari mira, arnas goratzeko gura.

Eta, hara, aski azkar konturatuko da poesia irakurle alferrena ere poema narratiboak badirela halaber –dena delakoa dela poema narratibo izendapen hori–: *Esperantzazko solasa* edota *Haurra eta katabuta*, ia ipuintxo bat kontatzen dizutenak. Baina ez zaio bereziki kostako, era berean, bestela ebakita dauden poemak identifikatzea, koplariagoak: *Pariserat bidez* –Arnaud Oihenarti kuku– edota *Amodioaren urrentzia*. Ez gutxi kantatzeko modukoak begitandu zaizkit, Oskorrik *Negu partean mizpira* eder harekin egin bezala –“zu nitaz baino ni zutaz nago/ askozaz gehiago zale”–. Izan ere molde bitako poemak aurkituko ditu, batzuk libreak eta besteak lotuak. Baina guzti-guztiak esan daiteke direla aski askeak, aski buruaskiak, are aski bustiak: lerratzen dira nolabaiteko espiritu kritiko batekin. Eta, zer demonio, batzuek badute tarteka ukitu apokaliptiko bat, oso garaira datorrena: “Etorriko da eguna/ lurra ikaratu eta eraitsiko baita dorrea” (...) “eta orduz geroz oin berriek ebakiko dute bidea” (...) “etorri behar baita eguna/ dena berdin izatekoa”. *Zoperna* handia baita, uholde jenerala, jainkoak bidalitako zigorra; edo, nondik begiratzen zaion, bedeinkapena. ■

Aritz Galarra



1 irakurri



2 hautatu



3 erabili



4 lagunei bidali

|                                                       |                               |                                                          |                                      |                                         |                                               |                                                    |
|-------------------------------------------------------|-------------------------------|----------------------------------------------------------|--------------------------------------|-----------------------------------------|-----------------------------------------------|----------------------------------------------------|
| PERTSONAIA-<br>REN IZENA<br>-----<br>DENA             | BURMUIN<br>-----<br>BEHARREAN | SU-ARMA<br>MOTA                                          | IZAN EZIK,<br>SALBU<br>-----<br>GOR  | BURDINOLA<br>-----<br>SORTU<br>ZINTUENA | ZUHAITZ<br>MOTA<br>-----<br>ASTO EMEA         | PERTSONAIA-<br>REN ABIZENA<br>-----<br>IOIAK ERATU |
| MANDRA-<br>GORA<br>-----<br>ENPRESA-<br>MULTIZOA      |                               | TABERNARIA<br>-----<br>MUSIKA<br>NOTA (ALDE-<br>RANTZIZ) |                                      | OSKOL,<br>KUSKU<br>-----<br>IODOA       |                                               |                                                    |
|                                                       |                               |                                                          |                                      |                                         | PUNTA,<br>GAILUR<br>-----<br>SUARI<br>DARIONA |                                                    |
| LETRA IZENA<br>-----<br>NOREN<br>ATZIZKIA<br>TANTAKA  |                               |                                                          |                                      |                                         |                                               | IKUSI<br>(LABURDURA)<br>-----<br>ETSAITASUNA       |
|                                                       |                               | ALDERRI                                                  |                                      |                                         | ELIZKIZUN<br>MOTA<br>-----<br>BAT-BATEAN      |                                                    |
| EGOKIA<br>-----<br>ZUKU                               |                               |                                                          |                                      |                                         |                                               |                                                    |
|                                                       |                               | LITROA<br>-----<br>LARRUZKO<br>XINGOLA<br>MEHE           |                                      |                                         | ZAMA-ABERE<br>-----<br>HALA ERE               |                                                    |
| DAUKAT<br>(ALD.)<br>-----<br>NAHIGABEZ-<br>KO DENBORA |                               | JATOR<br>-----<br>GIGA                                   | SANTU<br>-----<br>PRESIO-<br>UNITATE | ANPEREA<br>-----<br>JARDUN,<br>ERAGON   | URREAREN<br>SINBOLOA<br>-----<br>TOKA, DU     | PILOTAN,<br>TANTO<br>ZIURRA                        |
|                                                       |                               |                                                          |                                      |                                         |                                               | FOSFOROA<br>-----<br>BOKAL<br>ERREPIKATUA          |
| GAR<br>-----<br>PERTSONAIA-<br>REN AZKEN<br>LIBURUA   |                               | JAURTITZEN<br>DENA<br>-----<br>FLUORRA                   |                                      |                                         |                                               |                                                    |



|   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
|   | A | G | C | A | O | U | G |
| O | S | A | O | T | A | R | I |
|   | U | R | I | L | M | S | K |
| I | N | D | S | T | R | I | N |
|   | E | N |   |   | K | E | I |
| I | X | A |   |   |   | M | Z |
|   | O | N |   |   | B | E | T |
| U |   | L |   |   | A | S | T |
|   | T | U | M | D | A | A | U |
| N | H | I | G | B | E | A | P |
| K | A | I | J | A | U | R | I |
| K | A | I | F | O | R | N | I |
|   |   |   |   |   |   |   |   |



# Aluminiozko Adarra

*Tururu!*

Aitor Ruiz de Eginoren  
erakusketa

**Non:** Bastero Kulturgunea,  
Andoain.

**Noiz:** otsailaren 28a arte.

AITOR RUIZ DE EGINOK (Hernani, 1971) marrazkietatik abiatu zuen bere arte jarduna. Bi dimentsiotako lan horiek zeramikaren bidez iritsi ziren hiru dimentsioetara. Eskulturan, burdina, brontzea eta harria ere landu ditu, baina euskal artisten artean ezohikoa den aluminioa du material kuttuna. Metal distiratsua da, herdoildu gabe luzaroan bizi dena, bizitza irudikatzen du egokia. Eta aluminioaren eskutik bi dimentsiotara itzuli da. *Tururu!* erakusketan aluminiozko 40 marrazki bildu ditu.

Kolore biziak erabiltzen ditu koadro horietan, oinarritzko koloreak, horiak, gorriak, urdinak... bere horretan, nahastu gabe. Ez ditu koloreak gehiegi landu nahi garrantzia duena forma delako, metalezko lerro garbiz osatutako forma.

Erakusketa aretoko horma zuri, garbi eta zutetan daude jarrita



*Mar137 (2013).*

marrazki gehienak, ilaran eta zuzen, tamaina bereko multzoak horma banatan. Baina Ruiz de Eginoren aluminiozko marrazkiak ez dira lauak, zimurtuta daude, hormatik irteten dira, euskarriaren garbitasuna hautsiz, eta Basteroko edukiontzi asimetrikoarekin bat eginez.



*Sortaldean (2013).*

Erakusketa aretoko zementuzko forma kurbatsuak atze-oihal egokia dira eskultura lanetarako ere. Erakusketa 18 eskulturak osatzen dute, guztiak aluminio galdatuzkoak. Ikusleak parean zer duen galdetzen dio bere buruari. Zer egitura da hau? Animalia bat? Gizakia? Biak batera? Zer dira hauek, gizakiaren besoak ala zenenaren adarrak? Kutsu surrealista dute, egileak bilatzen duen misterioa.

*Tururu!* osatzen duten lanak berriak dira, gehienak azken urtean egindakoak, baina ez dute hernaniarraren obraren jarraitutasuna hautsten. Ruiz de Eginok *Antropozoofomak* izenburuko erakusketa egin zuen 2011n, eta izen horrek ederki definitzen ditu parean ditugun formak. Edo antropozoofitoformak

ere esan geniezaieke, animalia-gizaki horien gorputz-adar luzatuek zuhaitzen sustraieetatik eta adarretatik asko baitute. Eta, oro har, Aitor Ruiz de Eginoren lanak asko du Adarratik. Adarra mendia du inspirazio iturri, eta bere lanak Adarrako izaki bizidunak dira, artistaren burutik iragazita.

Hernanin lan egiten du artistak. Zikuñaga auzoan duen Zikuzulo tailerrean. Hernanik harreman estua izan du Antzinarotik metalgintzarekin eta Aitor Ruiz de Eginok ere txikitatik egon da metalari lotuta, aitzak galdategi batean egiten baitzuen lan. Artelanak osatzeko behar duen guztia bertan du eskura ([www.aitor-ruiz-de-eguino.com](http://www.aitor-ruiz-de-eguino.com) gunean eskulturak egiteko prozesu osoa biltzen duen bideo ederra dago ikusgai), eskura du materiala biltzeko txartategia, eskura aluminioa galdatzeko lantegia eta metala margotzeko pintura. Dena, Adarraren magalean. ■


**Nagore  
Irazustabarrena**



# Pankrea osasuntsu mantentzeko gakoak

PANKREAK, gure irakurleetako gehienentzat seguruenik aski ezezaguna den organo txiki horrek, garrantzi handiko bi eginkizun dauzka: digestioan parte hartzen du eta odoleko azukre-maila erregulatzen du, intsulina jariatuz.

Itxuraz horretarako inolako arrazoirik egon gabe sabelaren erdialdean bat-batean agertzen den min akutuak, zorrotzak –sarritan sukar pixka bat eta goragalea ere izan daitezke–, pankrea handitua dagoela adieraz dezake. Eta kasurik gehienetan pankreatitisa –horrela esaten diogu medikuok hantura horri– koipe gutxiko dieta egokiarekin desagertu egingo den arren, ez genuke ahaztu behar ondo zaindu ezean arazoa kroniko bilakatzeko arriskua dagoela.



sedentarismoak eta gurea bezalako gizarte batean ohikoa den etengabeko estresak kalte nabarmena egiten diote eguneroko bizimoduan hain beharrezkoak ditugun pankreako jariakinen produkzioari. Baina aipatutako faktore horien guttien gainetik, alkohola da pankreakaren etsairik txarrena, haren inflamazioa kroniko bihurtu dezake eta.

● **Kontuz desidratazioarekin.** Egoera horretan intsulina produkzioa murriztu egiten da, eta horrek metabolismo osoa aldrebestea ekar dezake. Hori saihesteko, ur ugari edatea komeni da, eta baita fruta-zuku naturalak eta belar-infusioak ere.

● **Pankrea “garbitzeko” infusioak.** Badira eragin desintoxikatzaila duten sen-

dabelarrak, baina horietako edozein erabili aurretik, onena zure medikuari galdetzea da. Esaterako, alkatxofa-ura erabil daiteke; irakin ondorengo ura erremedio egokia da gibela eta pankrea garbitzeko.

Boldoa, berriz, pankreako sen-dabelarrik onenetakoa da; hori bai, zaporez mikatz samarra da. Oso lagungarria izan daiteke, halaber, asun nagusia (*Urtica dioica* L), pankreakaren egitekoak bizkortzen ditu eta.

● **Erabili pankreakaren babesle naturala.** Oliba olioak pankreako zelulak indartzen dituzenez, alkohola bezalako eragile toxikoen aurrean erresistenteago bihurtzen du, Granadako Unibertsitatean bukatu berri duten ikerketa batek frogatu duenez. ■



## Gainkargak saihestu

Pankrea sabelaren goiko aldean dago, urdailaren, barearen eta gibelaren artean. Organoaren funtzionamenduak huts egiteak sabel barruko beste organo batzuei –gibelari, esaterako– erasaten dien kate moduko erreakzioa jartzen du martxan. Pankrea zaintzeko gomendio batzuk emango dizkizuegu hurrengo lerroetan.

● **Zaindu ahoko higieina.** Harvardeko Unibertsitateko (AEB) Osasun Publikoko Eskolak argitaratu berri duen ikerketa baten arabera, gaixotasun periodontalak jota dauden pertsonen, bestela esanda hortzoiak gaizki zaintzen dituztenen, pankreako minbizia izateko arrisku handiagoa dute, %60 handiagoa hain zuzen ere. Itxura batean, ez hortzoie-

tan bakarrik, gorputz osoan gertatzen den inflamazioa izango litzateke tumorea jasateko arriskua dakarrena. Arrisku horren kontrako aholkua argia da: garbitu itzazu hortz-haginak hiru aldiz egunean, hortz-haria erabiliz, eta zoaz urtean behin gutxienez odontologoarengana.

● **Dieta osasungarria.** Koipeek, haragi gorri eta jaki prozesatuetatik datozenek batez ere, eta irin nahiz azukre birfinduek gain-esfortzu bat eskatzen diote gure pankreako digestioaren orduan. Frutak, barazkiek eta zereal integralek, aldiz, eragin babesle eta desintoxikatzaila dute, euren zuntz-eduki altuari esker.

● **Baztertu aztura kaltegarriak.** Erretzeak, kafe edo te beltz gehiegi edateak, komeni baino freskagarri gasdun gehiago hartzeak,

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16



## Gaztaiak ketzen

AURREKOA AMAITU NUEN erari helduko diot: gosea piztuz. Gazta aipatu nuen. *Alnus glutinosa*, haltzaren ezpalez ketzen direla nioen, baita haltzak bihotzaz gain odola ere baduela. Kolore gorri asko eransten dio gaztari, gorri hila, distiragabe hila. Ketzen azkarrena da haltza, segituan gorritzen du; siestan-edo deskuidatuz gero... gaztak alferrik galtzeraino.

Zeraingo gaztagileei galdezka arituta jakin ditut kontu hauek. Neuk ezagutzen dudana paisaia kultural onenetako bateko zaindaria dira Miren, Juanjo, Martina, Jabier, Josu, Milagros, Maria Angeles, Julian, Jon, Hilari, Juan, Inazio eta Josune, baita Eugenio itsua ere. Ezin ordainduko lana egiten dute gu denon onerako. Eta jakintza izugarria dute, milaka urtetan ondutakoaren zaindaria dira. Eta ontzaile eta hobetzaile. Kultura-dun eta ikasi handienen pareko.

Haltzaz gain, egur asko aipatzen dituzte, han esaten duten bezala, gaztaiak ketze lan horretarako. Bere biotopoen, urrutira gabe, eskuratzen dituzten egurak denak.

Elorri zuria, *Crataegus monogyna*, sona handikoa da. Kolore apal xamarra ematen du, baina oso oso fina. *Fraxinus excelsior* lizarren zaleak ere badira. Sagarrondoak, *Malus x domestica*, eta pagoa,



PRAZAK-CC BY SA

*Prunus avium* espezieko gereziendoa.

*Fagus sylvatica*, ere erabiltzen dituzte. Baita otsalizarra ere, *Sorbus aucuparia*, eta “mendi lizarra” deitzen dute. Gehienek bereziki maite dute beraiek “keiza” deitzen duten gereziendoa, *Prunus avium*; gaztari horrek bezalako distira ematen dion egurrik ez omen da. Gauza bat, behintzat, dute denek argi: erretxinadun egurrik ez da erabili behar. Koniferoei ezezko biribila ematen diote.

Gaztak ketzeko, horiek dauden tokiaren kanpoko aldean berontzi batean sua egin eta kea barrura bideratzen da. Onena egur hezea

da, egunean bertan botatakoea bada hobe, heze-hezea.

Ketzea jakia hobeto kontserbatzeko era bat da, gazta lehortzeko eta jatunaren osasuna kalte egin diezaioketen mikrobioak ugaltzea eragozteko erabat. Era berean, ketzen denean, gaztan osagai berriak sortzen dira, eta haren ezaugarri organoleptikoak aldatu egiten dira, aho-sabaira desberdina da.

Zein mokofin txorrotzek bereiziko lituzke eginaldi bereko gaztak egur desberdinekin ketuta? ■



### Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba. Aspalditik mendian bizi gara, baserri batean. Baso eder bat sortzeko ametsa geneukan, baina zuhaitzek hamar urte zeuzkatenean sikatzen hasi ziren, batez ere haritz amerikarrak. Enborreko azala galdu zuten, eta ondorioz adarrak lehortzen hasi ziren. Batzuk hil ziren eta besteek, nahiz eta okertuta, jarraitu egiten dute.

Orduan esan ziguten lursagua izan litekeela kaltea eragin zuena. Orain ortuan ere sartu dira eta tunelak egiten dituzte eta landareen sustraiak jaten dituzte. Porruak, azenarioak eta abar hil egin dira. Zer egin dezakegu satortxo horiek pikutara bidaltzeko? Nahiago dugu zerbait ekologikoa.

**Leen Ronse (Elgoibar)**

Iepa Leen, ez daukazu lan makala! Satain edo lursaguak oso zailak dira akabatzen. Arerioengandik babesteko gustuko dute nolabaiteko estalkiren bat duen lurra: zakartutako belar handia, plastikoak... Gaueko eta egune-

ko hegazti harrapariak dituzte kontrario. Horiek sustatu behar dira, eta lurra garbia eduki. Entzun izan dut baten batek haien galeriak urez bete izan dituela, beste lur batzuetara bidaltzeko. Ea asmatzen duzun. Ongi izan. ■



# Arkeologia eskatologikoa Lewis eta Clarken bidean



BRADFORD &amp; INSKEEP

Lewis eta Clarken espedizioaren mapa, 1814an argitaratua. Espedizioari esker, AEBetako ipar-mendebaldeko mapetan zehaztasunez jasotzen hasi ziren, eta Columbia eta Missouri ibaien iturburuak topatu zituzten. Berriki espedizioaren mapa askoz zehatzagoa egitea lortu dute partaideen sabel-husteei esker.

ST. LOUIS (AEB), 1804KO MAIATZA. Meriwether Lewis kapitainak eta William Clark tenienteak zuzendutako espedizioa abiatu zen, AEBetako mendebaldeko zeharkatu eta Ozeano Bareko kostaldera iristeko.

Thomas Jefferson presidenteak enkargatu zuen espedizioa, 1803an Louisiana erosi eta berehala. Helburu nagusia eskuratu berri zuten lurraldea esploratzea, kartografiatzea eta kolonizatzen hastea zen. Bigarren mailako hainbat xede ere bazituzten: flora eta fauna aztertzea, mineral hobiak aurkitzea eta tokiko tribuekin merkataritza harremanak ezartzea.

Abentura hark zenbat iraungo zuen eta bidean zerekin topo egingo zuten ez zekitenez, espedizioa kideek entrenamendu gogorra jaso zuten. Espedizio buruei, Lewisi eta Clarki, Andrew Ellicottek sextantea erabiltzen erakutsi zien, eta Benjamin Rushek oinarritzko sendabideen ikastaro azkarra eman zien. Rush Jeffersonen lagun mina zen, eta 1776ko Independentzia Deklarazioaren sinatzaileetako bat. Garaiko mediku ezaguna zen, lau humore edo likidoen teoriaren defendatzaile sutsua izan arren (behazun beltza, behazuna, mukia eta odola). Rushen ustez, lau likido horien orekak baldintzatzen du osasun egoera, eta baten urritasuna edo soberakina dago gaixotasun

guztien jatorrian. Hala, haren erremedio ezagunaren artean ohikoak ziren odolusteak eta heste-aringarrien bidezko purgatzeak. Rushen arabera, behazun soberakinak idorreria, buruko mina eta nekea eragiten zituen, eta hori guztia sendatzeko pilula asmatu zuen. Pilulen %50 merkurio kloruroz osatuta zegoen, eta purgatzaile indartsuari esker, gehiegizko behazuna botatzea eta oreka berreskuratzea lortzen omen zen. Lewisi pilula kargamentu oparoa eman zion bidaia abiatu aurretik.

Espedizioan ehiza zuten elikagai nagusi eta ia bakarra. Horregatik nekearen eta idorreriaren lehen sintomak berehala agertu ziren, eta Lewis pilulak banatzen hasi zen ezker-eskuin. Gainera, indigenekin harreman sexualak ohikoak zirenez eta merkurioa sifiliaren aurkako erremedio ezagun bakarra zenez, espedizioa partaideek ez zuten inolako erreparorik pilulak hartzeko. Organismoak ez du merkurio kloruroa batere ondo asimilatzen eta gorozkiekin batera egotzen da. Horregatik espedizioak luzaroan desagertuko ez den arrastoa utzi zuen: merkurioarena. Eta arkeologoak espedizioaren bidea zehaztasun osoz identifikatzeko gai izan dira horri esker. ■



## Arrastoak

### Gotikoa, berez, iraina da

XII. MENDEAN sortutako arte estilo ezaguna lau mende geroago bataiatu zuten “gotiko” izenondoarekin, bataiatzailearen asmoa, berez, estiloa erdeinatzea izan arren.

Giorgio Vasari artista eta historialari italiar ezagunak 1550. urte inguruan erabili zuen lehenengoz adjektibo hura artelan multzo bikaina deskribatzeko. Beraz, ez zen arteaz ezer gutxi zekien ezikasi baten iraina, aditu baten iritzia baizik. Vasariaren asmoa forma gotikoen zakarkeriaz ohartaraztea zen.

Gotiko terminoak “godoei buruzkoa” esan nahi du, eta horren bidez Vasari adierazi nahi zuen arte estilo hura barbaroena zela, topatzen zuten oro arpilatze eta suntsitzeko joera zuten herriena, antzinako Greziako eta Erromako obra klasikoaren perfektzioa eta edertasuna bilatzeko inolako interesez ez zuten herriena.

Vasari ez zuen arrakastarik izan bere kritikan. Ordurako gotikoa Europa mendebaldean hedatuta zegoen eta, nahi gabe, kutsu iraingarria berehala galdu zuen izena ipini zion hainbeste gorroto zuen estiloari. ■



# «Gure estrategia nola indartuko dugun, hori da giltzarria»

Baiona, 1962. Ekonomialaria. Hautetsien Kontseiluko eta Euskararen Erakunde Publikoko zuzendari ohia. Kontseilu Nagusiko zuzendaritzako kargua utzi zuen orain urtebete Herriko Etxeko hauteskundeetan parte hartzeko. Baiona 2014 hautagaitzaren zerrendaburua da.

| MIKEL ASURMENDI |

Argazkiak: Dani Blanco

IPAR EUSKAL HERRIKO abertzaletasunaren egoera orokorraz mintzatu gara Baiona 2014ko hautagai nagusiarekin: “Herriko Etxetako bozak une berezian heldu dira. Abertzaleak EH Bai eratzen ari gara. Helburuak finkatuak daude, baina estrategiak ez arras oraino. Zentzu horretan, hauteskundeetan hautatu hautetsi abertzalearen kopuruak EH Bairen desmartxa baldintzatu du. Hau da, kopurua handia bada, baldintza hobean hasiko dugu dinamika berria, aro berria emaitzen arabera abiatuko da. Ezker abertzalea (EH Bildu Hegoaldean bezala) egitura bakarrean aritzeko

garaia da honako hau. Beraz, jendearen kuraia behar dugu, baita hautetsi kopuru ona erdietsi”.

**Zerrendaburu zara Baionan. Ezkerrekoa bai, baina ez duzue zuen burua abertzale gisa aurkeztu. Emaguzu hautagaitzaren izaeraren ideia bat.**

Baionan zerrenda abertzalea izan da beti. Hautagaitzak anitzak izan dira, abertzaleak nagusiki, baina bertze batzuekin juntatuak. Gisa batez, abertzaleen boza beti entzuna izan da lehen itzulian. Boz hauek bereziak dira, jendea hurbilagoa dago bizitza politikotik, herritarra programaz interesatzen da, deba-

tean sartzen da. Beste mugimendu batzuekin joanik ere, ekimena berdin inportantea da abertzaleen asmoak gauzatzeko. Bi gauza dira funtsezkoak: boz kopurua eta debatea. Bertze hautagaien programetan eragin dezakegu, horregatik lehen itzulian azkar jokatu behar dugu. Sei zerrenda daude, espazio politikoa murriztu da mezua helarazteko orduan. Gure hautua egokia da, esperantzaz beterik ari gara.

**Demokrazia parte-hartzailea bultzatu nahi duzue.**

Baiki. Demokrazia parte-hartzailea anitz aipatzen dute kandidatura

“Baiona 2014 hautagaitza biziki egokia da, esperantzaz beterik ari gara”.







**“Lanen aurrekontuak auzoka aurkeztu daitezke biltzarren bidez. Hori politika egiteko molde bat da, politika absolutista saihesteko eginbidea”.**

guztiekin, baina hori nola lantzen den! Erabaki publikoak hitzarmen bidez hartu behar direla diogu gehienek. Legeak kolektibitateak gonbidatzen ditu halako desmartxetan parte hartzera. Erran bai, egitea zailagoa da ordea. Guk praktikan ezarri nahi dugu, eta ez bakarrik erabakiak kontzertazioz hartuz, erabakitzeko botere-guneak, hein batean bederen, partekatu nahi ditugu herritarrekin.

### Nola?

Hiru printzipioetan funtsaturik: jendea formatuz, sentsibilizatuz, boterearen parte jendearen eskutan ezarritik. Modu egokiena aurrekontuetan parte-hartzea da. Adibidez, auzo batzuetan elkarrekin asanbleen bidez: auzotarrek proiektuak aurkeztuz –etxeen eta auzo-guneen antolaketan– eta guk haiekin batera parte zuzena izanez. Aurrekontuak auzoka aurkeztu daitezke biltzarren bidez, hori ez da ezinezkoa. Hori politika egiteko molde bat da, politika absolutista saihesteko eginbidea.

### Bizi! mugimenduaren bidean...

Bizi! mugimenduak proposatutako ikuspuntuak kontuan hartu ditugu bistan da: 1. Gure politika ezkerrean finkatzea. 2. Demokrazia parte-hartzaileari bai, hasteko, gure barne funtzionamenduan, eta Herriko Etxean izanen garelarik ere, funtzio

publikoan aplikatzeko. 3. Energiaren trantsizioa lantzea. 4. Euskal Herriari dagokionez: Lurralde Elkargoaren eta euskararen alde eginez, bai barne funtzionamenduan bai Herriko Etxean. Baiona 2014 hautagaitzak Bizi!-ren testuarekin bat egiten du, alta, teoria gauza bat da eta praktika beste bat. Testu horrekin denok bat egiten dugu, gero, koalizioan joera ezberdinak daude, guk ez dugu alderdi politiko-en eskemarekin funtzionatzen. Gure funtzionamendua Biltzar Nagusia finkatua da, horren barnean talde eragilea dago, Kontseiluaren bidez ari dena. Areago, gure proiektuaren kide izateko, gure programarekin bat egiteaz gain, kanpainen ere parte-hartzea eskatzen dugu, bakoitza bere heinean, baina ari garenon inplikazioa funtsezkoa da.

**Jean Grenet auzapezaren ondorengo hautatuko da. Jean-Rene Etchegaray axuanta zentristak UMPren sostengua dauka. Batera-ko kidea da. Bigarren itzuliari begira, zein da zuen asmoa?**

Bigarren itzuliaz ez dugu eztabaidatu. Ez da aitzin solasik izan, nahita. Gure taldean bigarren itzuliari buruz jarrera ezberdinak direlako, ez dugu debate hori egiazki hasi. Jendea eremu ezberdinetatik heldu da, programak lehentasuna dauka, funtsezkoa taldearen kohesioa lortzeko. Ikuspuntu anitzak dira eta

denbora asko eman dugu programa osatzeko, ez dugu denbora “galdu” bigarren itzulian zer egingen dugun eztabaidatzen.

### Hori da antolaketaren gakoa, naski.

Bai, nolabait. Abertzaleok ezkerreko beste indar batzuekin juntatzea erabaki dugu, eta hori ezin da egin antolaketa sendorik gabe. Proiektu eta printzipio komunak adostu eta partekatu behar ditugu. Irekiak eta anitzak gaila erraita ez da aski, praktikatu behar dugu, baita argiki erran ere zer partekatu nahi dugun. Gure proiektuan sentsibilitate ezberdinak ari gara: zentro-ezker, ezker eta ezker ezkerrekoagoak. Abertzaletasunari dagokionez, badaude independentistak eta deszentralizazioaren prozesuan jokatu nahi dutenak. Lehen itzuliko emaitzak ezagutu ondoren estrategiak finkatuko ditugu. Horra gakoa.

### Henri Etcheto da PSko zerrendaburua. Zer iritzi duzu ezkerreko aukera horretaz?

Nik zuhur jokatu behar dut. Molde kolektiboan ari gara, nik ezin dut ene gisa deus berezirik erran. Gure taldean ezkerreko jarrerak pisu gehiago dute noski, baina ez PSrekin akordioa egitekotan, hor daude ere Front de Gauche eta beste. Etchegaray badago ere, Lurralde Elkargoaren aldeko bere atxikimendua ezaguna da. Beraz, emaitzak ezaguturik debatea hasiko dugu gure taldean. Hauteskundeetan proiektua sendotuta ateratzea da inportantea.

### “Baionan auzapeza hautatzeko abertzaleak giltzarri izanen dira” erran zigun Mixel Bidegainek.

Izaten ahal gara, lehenik emaitzak ikusi behar dira. Aipatu hautagaien emaitzak parekatuak baldin badira gure bozak erabakigarriak izan daitezke. Baina, berriz diot, guretzat ez da bakarrik noren alde egin, inportantea, Herriko Etxean egin nahi dugun politika ontsa finkatzea da, heldu den etapan gure proiektua ongi bideratzeko: zer-nolako ardurak hartu nahi ditugu udal talde batean? Auzapez baten alde edo bestearen aldeko jarrera hartuz gero, nola? Eta oposizioan aritzea

erabakitzen badugu? Hau da, gure estrategia zein baldintzetan garatuko eta indartuko dugun, hori da giltzarria guretzat.

**“Herriko Etxeko eta Aglomerazioko eskumenak landu ditugu osotasunean, eskumen estrategikoak Aglomerazioen baitaude”**

Lehen aldikoz bozak ez dira bakarrik Herriko Etxeetarako bakarrik. Herri elkargoak hautatzen dira. Zuen Côte Basque Adour aglomerazioa da. Nola nahi duzue horretan eragitea?

Herriko Etxeko eta Aglomerazioko eskumenak kontuan hartu ditugu, eta horri begira landu gure programa, osotasunean, eskumen estrategiko garrantzitsuenak Aglomerazioan baitaude. Herriko Etxeak ez du eskumen izpirik garraioan, ekonomian, etxebizitzan edota goi-mailako irakaskuntzan. Horiek denak Aglomerazioan erabakitzen dira, hor dago egiaki boterea. Aglomeraziorako bozak biziki inportanteak dira eta areago guretzat. Lehen aldikoz hautatuko dira Aglomeraziorako hautetsi berriak zuzenki, ez udalen bitartez. Guk, zoritxarrez, legeak ezarritako araua ez dugu gustuko: Aglomerazioko zerrendako lehen 13 ize-nek eta Herriko Etxekoek berak izan behar dute. Legea aldatu eta hori ezberdindu beharko litzateke. Alta, behartuak gaude legea betetzera. Baiona, Angelu, Miarritze, Bokale edo Bidarteko auzapeza izanen da Aglomerazioko burua. Gure ustez, seigarren pertsona batek presidente orde izan behar luke, auzapeza izan gabe. Aglomerazioko presidentea eta herriko auzapeza ez den beste hautetsi bat izatea eskatu dugu. Alderdi nagusiek esparru asko “kontrolatu” nahi dute hautetsi gutxiren bitartez. Hori guretzat

demokraziaren kontra egitea da eta kanpaina adieraziko dugu ozenki.

Herriko bozak pasatu eta gero “Ipar Euskal Herriaren egituraketaz mintzatzeko prest dela erran du deszentralizaziorako Marylise Lebranchu ministroak. Zer deritzozu?

Bozen ondoren Hautetsi eta Garapen kontseiluak hasiko dira kontratu berria prestatzen Estatuarekin. Hautetsien Kontseilu berria hautatua izanen da. Berean badaude ere diputatuak eta senatariak, baita Paueko kontseilari nagusiak ere. Hala ere, herri elkargoetakoak izanen dira hautetsi kopuru gehiena. Hurbiletik segitu beharko dugu nolakoa izanen den hauteskundeetatik landa osatuko den Hautetsien Kontseilua. Horrek izanen baitu boterea, ez gauzen erabakitzeko, baina bai gogoetatze. Estatuak hor xerkatuko dit mintzakideak. Debatea kartuki segituko dugu.

**Herri elkargoen bidez, Lurralde Elkargoa eratzeraz irits daitekeela entzun da han-hemenka.**

Lurralde Elkargoa lortzeko hainbat bide urratu daitezke. Urtetan plazaratu den aldarrikapena departamendua sortzea zen. Berriki, metropolien bidezko aukera aipatzen da. Eginbideek ez dute elkar traba egin behar. Konparazionera, Iparraldeko instituzioek (Garapen eta Hautetsien kontseiluek) badute ahalmena elkargo hori bideratzeko, behetik gora egitura litzateke. Ez dakit ilusioa edo utopia den, baina bideak landu behar dira. Tokian tokiko herri elkargoek bat egiten badute, adibidez, Euskal Herria hor ageri da, nork bere boterearekin instituzio bat osa daiteke. Aukerak badaude, bakoitzaren abantailak behar dira aztertu. Frantziako Gobernuak hemengo kolektibitateari tinko uko egiten badio ere, guk bideak eta aukerak landu behar ditugu, gisa batez edo bertzez aitzina egin behar dugu. ■



2014

Txotxongiloak, ipuin kontalariak, magia, antzerkia...  
Bilboko Haur Kultur Zirkuitua | 2-8 urte  
URTARRILA • OTSAILA • MARTXOA • APIRILA

|       |                                                                               |
|-------|-------------------------------------------------------------------------------|
| 2/ 21 | GALDER PEREZ. IRRIPUINAK<br>LARGABISTAREKIN<br>18:00etan Abandoko udaltegian  |
| 2/ 22 | MOZORRO TAILERRA<br>11:00etan Deustuko Bidarte udaltegian                     |
| 2/ 25 | MOZORRO TAILERRA<br>18:00etan Begoñako udaltegian                             |
| 2/ 26 | MOZORRO TAILERRA<br>18:00etan Errekaldeko udaltegian                          |
| 2/ 27 | POTXIN ETA PATXIN<br>18:00etan Bilborock aretoan                              |
| 2/ 28 | MOZORRO TAILERRA<br>18:00etan Abandoko udaltegian                             |
| 3/ 01 | ANE MONNA, OSKOLA ETA<br>KARRAMARROI<br>11:00etan Deustuko Bidarte udaltegian |
| 3/ 04 | BEGO ALABAZAN<br>18:00etan Begoñako udaltegian                                |
| 3/ 05 | ERIZ MAGOA<br>18:00etan Bilboko Karmen aretoan                                |
| 3/ 06 | KIDAM MAGOA<br>18:00etan Bilborock aretoan                                    |
| 3/ 07 | ZURRUNKA TEATROA<br>18:00etan Zamakolan, Juan Delmas ikastetxean              |
| 3/ 13 | KUKUBILTZO ANTZERKI TALDEA<br>18:00etan Bilborock aretoan                     |
| 3/ 14 | ZIRIKA ZIRKUS<br>18:00etan Basurtoko udaltegian                               |
| 3/ 19 | IRRIEN LAGUNAK<br>18:00etan Bilboko Karmen aretoan                            |
| 3/ 20 | MONDA ETA LIRONDA<br>18:00etan Bilborock aretoan                              |
| 3/ 26 | KIKI ETA KOKO<br>18:00etan Bilboko Karmen aretoan                             |
| 4/ 02 | TTR TEATRO<br>18:00etan Bilboko Karmen aretoan                                |

10 urte

Zure seme-alabekin euskaraz disfrutatzeko baliabideak sarean.  
Ikusi eta Ikasi bloga!  
[www.ikusietalkasi.net](http://www.ikusietalkasi.net)



# «Kanpamendu baketsu batean parte hartzeagatik kondenatu naute bizi osoko kartzelara»

Hassanna Aalia sahararrak bizi osoko kartzela zigorra darama gainean, 25 urterekin. 2010ean Maroko aztoratu zuen Gdeim Izik sahararrek antolatutako “kanpamendu askean” ibiltzeagatik jaso du kondena. Euskal Herrian tokatu zen, tribunal militar batek 2011n auzia argitaratu zuenean, eta hemen dabil sahararren askapen borrokan.

Testua eta argazkia:

| ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA |

Zer izan zen Gdeim Izik kanpamendua? “Duintasunaren kanpamendua” deitua, sahararrok 1975etik egin dugun manifestaziorik handiena izan zen. 1975era arte Espainiaren kolonia izandakoa da Sahara, eta orduz geroztik Marokoren eskuetan dagoen herria. Erregimen gogor baten menpe, gure askapen borrokan jarraitzen dugu. Bostehundik gora desagertu dauzkagu, hainbat eta hainbat preso, gure lurretan dagoen natur aberastasuna nola lapurtzen diguten testigu gara. 2010ean Noam Chomsky-k udaberrri arabiarraren hasieratzat hartutako aldarrikapena sortu genuen: Gdeim Izik kanpamendua.

2010eko urriaren 10ean hasi ginen kanpalekua eraikitzen. 20.000 sahararretik gora gerturatu ziren lurralde okupatuko kapital Aaiun-etik kilometro batzuetara sortu genuen “gune askera”. Hogeita zortzi egun iraun zituen zutik kanpalekuak. Hiri bat eraiki genuen egun horietan; gure lurraldean gure bizimodua litzatekeena eraiki genuen, gure jaimetan, aske, marokoar kolonirik gabe, polizia marokoarra urruti.

**Nola bizi izan zenuten sahararrek “Duintasunaren kanpalekua”? Zer sentitzen zen?**

Aske izatea zer den sentitu ahal izan genuen. Sahararren duintasuna



“Txikitatik hartzen dugu okupazio baten pean bizi garenaren kontzientzia. Eskolatik hasten da bereizketa. Ez digute gure hizkuntzan hitz egiten uzten”.

ikusten zen, eta egunerokoan bizi ohi dugun zapalkuntza utzi genuen alde batera.

**Nolakoa da sahararren eguneroko hori?**

Txikitatik hartzen dugu okupazio baten pean bizi garenaren kontzientzia. Eskolatik hasten da bereizketa. Klaseetan bi ilara egiten dituzte. Batean marokoarrak jartzen dituzte

eta bestean sahararrak. Ez digute gure hizkuntzan hitz egiten uzten, notak jartzerako orduan ere desberdintasunak daude... Gure hizkuntza, Hassania, eskolan sekula ikasi ez badugu ere, etxe guztietan hitz egiten da, eta eskerrak horri! Kanean jipoia jasotzeko arriskua daukagu. Desagertzeak ere egoten dira, emakumeen bortxaketak... Gure borrokan emakumea eragile aktiboa

da. 1970eko hamarkadan zonalde okupatutik alde egindako jendeak Aljerian eraiki zituen errefuxiatu asentamenduak, eta emakumeak horretan parte-hartze handia izan zuen. Gaur kanpamendu horietan emazteak dira kargurik garrantzitsuenak dauzkatenak. Konparatuz mundu arabiarreko beste herrialde batzuekin, emakume sahararrak gauza asko lortu ditu.

Gazteen kasua da gai larrienetako bat. Gazte ikasiek ez dute bizi-rauteko modurik ikusten beren herrian, eta barkuetan alde egiten dute erbestera.

### Nolako bukaera izan zuen Gdeim Izikek?

Azaroaren 8an heldu zen azken eraso. Goizeko 06:30ean, sartu ziren kanpamenduan, manera oso bortitzean. Helikoptero, kamioi... mota guztietako militarrek sartu ziren, mota guztietako armekin. Ikusi genuen jendea garrasika, nora jo ez zekiela, haurrek ezin zuten arnasarik hartu gas negar-eragilearen ondorioz, zaharrak lurtean... Ezin da hitzez kontatu han ikusitakoa. Gure erantzuna, baina, indartsua izan zen. Jendea Aaiunera gerturatu zen, eta ordu luzez protestak burutu ziren hirian. Bestalde, militarrek kolono marokoarrei dei egin zieten kalera ateratzeko sahararroi aurre egitera. Hilabete gogorrek bizi izan genituen ondoren: berrehundik gora atxilotu, bortxaketak, torturak...

### Atxilotuetako bat izan zinen zu.

Bi hilabetez egon nintzen ezkutuan. Baina ateratzea erabaki nuen egu-

nean bertan atxilotu ninduten. Hiru egun pasa nituen poliziaren esku. Torturatu egin ninduten, beste guztiak bezalaxe, eta Gdeim Izik kanpamenduaren antolatzaileetako bat izatea egotzi zidaten. Ondoren egindako epaiketan, baina, libre utzi ninduten. Geroztik, behin baino gehiagotan atera nintzen herrialde-tik arazorik gabe, baina 2011ko urrian Euskal Herrian hiru hilabeterako gaztelania ikasteko kurso bat

**“Epaiketan ez zuten froga txukun bakar bat ere aurkeztu. Odolik ere ez zeukan sukaldeko laban bat erakutsi zuten. Saharar herriari mezu garbia bidaltzeko prestatutako antzerkia izan da”**

egiten ari nintzela jaso nuen tribunal militarrek sumarioa ireki zuenaren berria. Ni aurkitu eta harrapatzeko deia egin zuten.

Orduz geroztik nago Euskal Herrian. 2013ko otsailean izan zen epaiketa militarra, eta bizi osoko kartzelara kondenatu ninduten, beste hogeita lau kidearekin. Kanpoan nagoen bitartean gure historia ahal dudan gehien zabaltzea da nire helburua.

### Zure kasua ezberdina da, ezta?

Bigarren aldiz epaitu naute gauza beragatik, eta hori ez da legezkoa. Horrez gain, tribunal militar batek ezin ditu zibilak auziperatu, gure

kasuan gertatu bezala. Hamaika polizia hil eta 20.000 pertsona bahitzeagatik epaitu eta zigortu gaituzte, baina bederatzi egun iraun zituen epaiketan, ez zuten froga txukun bakar bat ere aurkeztu. Odolik ere ez zeukan sukaldeko labana bat erakutsi zuten, besterik ez. Saharar herriari mezu garbia bidaltzeko prestatutako antzerkia izan da. Zona okupatuan daudenei erakutsi nahi izan zaie borrokan jarraituz gero zer gertatuko zaien.

### Espainiari asilo politikoa eskatua diozu.

Asilo politikoa 2012ko urtarrian eskatu nuen, eta oraindik tramitetan dabilta. Aurki daukat bilkura Barne Ministerioarekin. Espainiak harreman eta interes ekonomiko handiak ditu Marokorekin. Ikusi beharko da ze postura hartzen duen oraingoan.

### Eta nola dago estradizio aukera?

Marokok eta Espainiak estradizio akordioa daukate, eta edozein egunetan Marokora bidali nazakete. Niri ez zait inporta, Euskal Herrian eta Espainian gure egoera zein den azaltzeko aukera izan baitut. Espainiak estraditatzeko banau, oso agerian geratuko da Saharar Marokok darabilen okupazio politika babes-ten duela. Nahiko zail ikusten dut hori gertatzea, baina posibilitatea hor dago. Kartzelara joango naiz, baina Espainiak indar okupatzaileari oraindik ere ematen dion babes agerian geratuko da eta hori ona litzateke. ■





# blogetan!

BLOG IZARREN BILA



Sartu webgunean eta irakur itzazu kategoria bakoitzeko hiru finalisten blogak

Antolatzailea



www.blogetan.com

Laguntzailea



SARIAK: Bernat Vidal artistaren garaikurra | 200€ diru txekia | ARGIA kolaboratzeko aukera



# Zer garen erakutsi gurea saltzeko

Enpresaren markan euskalduntasuna oinarrietako bat izateak balio du saltzeko, balio du bezeroa hurbiltzeko, konfiantza emateko. Ternua eta Euskal Herria Esnea dira horren adibide. AZK branding agentziak bide hori urratu duten enpresak aholkatu ditu. IMHk antolatutako mahai-inguruan hiru enpresek haien gogoetak azaldu zituzten.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

ELGOIBARKO Makina Erreminta Institutuak urriaren 23an 30+10 Mintegiaren 8. edizioa egin zuen. Euskalduntasuna eta marka gaiari heldu zitzaion mahai-inguruan (bilatu sarean “imh branding”) izenburu honen pean: *Basque brand, euskalduntasunaren marka: 1.000.000 bezero 20.000 km<sup>2</sup>-tan, eta mundu osoa zain. Markaren osagai, euskalduntasuna duten enpresekin solasean.* Ternua arropa enpresako Rikardo Idiakez, AZK branding agentziako Edorta Azaola eta Euskal Herria Esneako Julio Ibarra izan ziren mahaikideak; moderatzaile lanean, artikulu hau sinatu duena.

## Rikardo Idiakez, Ternuaz

Ternua kirol arropa enpresa da. Euskaraz ditu marka (Ternua) eta leloa: *Non gogoa, ban zangoa*. Nazioarteko enpresa euskalduna izanda, euskara, gaztelania eta ingelesa kudeatzen dituzte, esate baterako sare sozialetan eta webgunean.

**Nazioarteko marka euskalduna zarete, alegia, munduko hainbat herrialdetan sakabanatuta daude zuen erosleak. Zuek zergatik erabaki duzue euskaraz ere aritzea?**

Ternua marka Arrasaten (Gipuzkoa) dago, Inport Arrasate dauka izena enpresak, 1986an sortua. Ternua 1994an sortu zen enpresa barneko negozio unitate bezala. Ternua sortzeko erabakia hartu zenean,



Ezkerretik eskuinera: Rikardo Idiakez (Ternua), Edorta Azaola (AZK), Julio Ibarra (Euskal Herria Esnea), eta Onintza Irureta Azkune moderatzailea.

euskara ere erabiltzeko aukera ez zen aukera soila izan. Euskararen, Euskal Herriko historiaren eta izaeraren gainean sortutako marka da gurea, beraz erabakiak berarekin zekarren euskara erabiltzea. Izaerak berak eskatzen zuen. Nazioartera zabaldu izanagatik, gure nahia izaera eta filosofia bera mantentzea izan da, eta halaxe mantendu dugu merkatu berrietan ere. Horren adibide da leloa, bera mantentzen dugu: *Non gogoa, ban zangoa*.

**Nola gerturatzen zarete euskaldunarengana edo euskaltzalearengana? Aztertu duzue nola hurbildu haiengana?**

Ez dugu inolako azterketarik egiten, badakigu gure marka euskalduntasunean oinarritzen dela. Kontrakoa aztertzen dugu, ea hizkuntzen metodologia nola landu behar dugun kanpora begira, estatura begira eta nazioartera begira. Baina ausartzen naiz esatera hemen gehienek marka ezagutzen dutela, hemengoa delako eta hemengo izaeran eta historian oinarritzen delako.

**Marka eta leloa euskaraz, sare sozialetan eta webgunean hiru hizkuntzatan, zein ondorio atera duzue kudeaketa horretaz?**

Garbi daukagu euskaraz sortutako marka eta leloa dauzkagula, horrekin jarraitu nahi dugu, bestela ez ginateke marka bera izango, beste zerbait izango ginateke. Garbi daukagu, baina garbi esaten dugu ez dela batere erraza. Hemen oso erraz hautematen den leloa daukagu [Non gogoa, han zangoa], baina ez da erraza beste herrialdeetara trasladatzea. Estrategiak pentsatu eta erabakiak hartu behar izan ditugu eta badakigu etorkizunean ere erabakiak hartu beharko ditugula.

Webgunea hiru hizkuntzatan dago [euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez]. Facebook-en kanal bakarra daukagu publiko guztia erantzutarako. Gure estrategia sinplea da, hiru hizkuntza maneiatzen ditugu –etorkizunean gehiago erabiliko ditugu–. Mezua norentzat den kontuan hartu eta hizkuntza baten edo bestearen alde egiten dugu, baita hizkuntza konbinazioak ere. Ondo ala gaizki ari garen, denborak esango du.

**Bezeroei hizkuntzen kudeaketak eragiten dizkien ezinegonak erantzuteko zein estrategia dituzue?**

Estatuko jendeari zuzentzen gatazkiak askok ez dute oso ondo ulertzen euskara erabiltzea, denok dakizkigun argumentuengatik. Alabaina, garbi daukagu estatuan gure erabiltzaileek bi hizkuntza erabiltzen dituztela eta biak erabiltzen saiatzen gara. Kontrako iritziak jaso ditugu eta jasoko ditugu, eta gure estrategia gardentasuna da: azaldu hau eta hau garena eta horrela funtzionatu nahi dugula.

**Nondik datoz erresistentziak?**

Iritzi negatiboez hitz egin dugu baina positiboak ere badaude. Bada jendea gure filosofia balioesten duena eta horrek gure estrategia babesten eta indartzen du. Hego Amerikan euskal jatorriko jende asko dago, haien artean hemengo

lurrari lotzeko bideetako bat da gure marka, produktu jakin batzuk erostean gain baditu beste osagai emozional batzuk. Horretaz harro gaude, hori da transmititu nahi duguna.

**“Saltzen duzuna baserrikoa dela badiozu, hemen egindakoa, euskara hutsean aritzeak ematen dio markari plus bat”**

Julio Ibarra

**Julio Ibarra, Euskal Herria Esneaz**

Abiapuntua Bizkaia Esnean du. Karrantza bialarako 56 baserri-rrek hasi zuten proiektua: bertako esnea bizkaitarren eskura jartzea zen helburua. Gaur egun, Euskal Herri osoko merkatura zabaltzeko asmoz izena aldatu eta Euskal Herria Esnea da marka. Euskalduntasuna ardatz dute, besteak beste produktuaren etiketajea euskara hutsean da.

**Zergatik erabaki duzue Euskal Herria Esnea euskaraz baino ez etiketatzea?**

Euskal Herria Esneak, Ternuak eta Euskal Herriko beste enpresa batzuek erabakia hartu dugu, euskara erabiliko dugu, edo euskara hutsean arituko gara. Konplexua gainetik kendu behar dugu, edo saiatu behintzat horretan. Zergatik saiatu behar dugu euskara erabiltzeko konplexua bazterrean uzten? Musika ingelesez entzuten nuen gaztea nintzenean, eta hitz bat bera ere ez genekien hizkuntza horretan. Ez genuen ordea, inolako arazorik ingelesez zelako, edo gaztelaniaz edo euskaraz zelako. Zein zen kontua? Kalitatea eta iristea. Abeslaria,

musika edo diskoetxea gustuko bazaizu bost axola ingelesez edo errumanieraz den. Euskararekiko dugun konplexua gainetik kendu behar dugu. Hizkuntza ez da funtsezkoa merkatura joateko.

**Baina zuk diozu euskaraz ari den produktua badela berezia euskaldunarentzat.**

Euskal Herrian euskaltzaleok euskarari diskriminazio positiboa ezartzen diogu, ez dakit noiz arte iraungo duen kontu horrek. Oporretan Murtzian [Espainiar Estatua] euskal markako produktuen bat ikusten baldin badugu, euskaraz hitzen bat duena, garestiagoa bada ere gustuko dugu. Gure barruan dugu euskararen aldeko jarrera, apustua edo militantzia. Kanpoan saldu nahi baduzu eta euskaraz egiten baduzu, politika kontuak edo aurrejuzuak direla medio oztopotak izan ditzakezu. Kontrakoa gertatzen da hemen. Euskal Herria Espainia, Frantzia edo Italia modukoa balitz, hizkuntzarekiko militantziarik ez legoke. Ondo dago euskararen aldeko jarrera baliatzea eta horren alde egitea, baina kontuan hartu behar da jarrera hori neurri batean bizi dugun egoeratik dela. Egoera normalizatuan ez litzateke horrela izango.

**Euskal Herria Esnea ez da sortu eskualde euskaldunenean.**

Bizkaiko Enkarterrietan, Karrantzan, egin dute apustua, konplexu barik. Agian, esparru euskaldunetan esnea ekoizten dutenek pentsatu dute: “Euskara hutsean egiten badugu, merkatuak ez dakigu nola erantzun duen...”. Begira nondik datorren apustua. Saltzen duzuna baserrikoa dela badiozu, hemen egindakoa, baserriko zure etxera doala egunero, euskara hutsean aritzeak ematen dio markari plus bat.

Babeslea: Bizkaiko Foru Aldundia

gure  
artean!  
euskaraz



BFA  
DFB





FORUM SPORT



M. G. I.

Ezkerrean, Ternua publizitatea egiten mendi korrikalarien bidez. Eskuinean, Euskal Herria Esnea euskaraz etiketatua.

## Edorta Azaola, AZKren esperientzia

AZK branding agentzia euskalduna 1987an sortu zen Arrasaten. Gaur egun Arrasaten eta Donostian kokatutako branding eta komunikazio enpresa da. Bezero askorentzat egiten dituzte marka-irudi eta komunikazio lanak.

**Zuek esana da: benetakotasuna, koherentzia eta jatorria dituzten markak dira gehien baloratzen direnak. Zer esan nahi dute termino horiek?**

Merkatu globalean gaude, marka ugari dago, beraz, markak jorratzerakoan ezberdintasunari eta bereizitasunari begiratu behar diegu. Ternua adibide hartuta, jatorriak eta benetakotasunak ezberdintzen dute, eta marka sortzeko beharrezkoa da hori. Atzean historia bat dago eta markak lantzeko historiak sortu behar dira.

Koherentziari dagokionez, zer garen eta zer esaten dugun gauza bera izan behar da. Merkatuak ez du onartzen guk gauza bat azaltzea eta benetako emaitza berbera ez izatea. Rikardok hizkuntza kudeaketaz hitz egin du; hemengoak bagara, jatorria eta hizkuntza balio erantsiak badira, merkatura begira ezin dugu ahaztu. Ternuarekin lan egin izan dugu, eta gogoratzen naiz nola batzuek esaten zuten leloak [*Non gogoa, han zangoa*] ingelesez izan beharko lukeela. Norberaren hizkuntza mantentzen bada, galdeztzen duenari norberaren historia kontatzeko aukera ematen du. Ingeleseko leloa izatea ez litzateke gauza bera.

Nola desmuntatzen dira hizkuntza bat edo beste erabiltzeagatik sortzen diren aurreiritziak?

Merkatuak berak desmuntatzen ditu. Estatuko elkarte baten bidez azoka batera joan eta erakusmahai guztietan Espainiako bandera jarri zuten. Ternuarekin joan ginen. Gure kontrako keinua zen, baina gertaera horrek ez du gura esan zure jatorrizko filosofia eta balio erantsiak galtzen dituzunik. Merkatuak desegiten ditu pertsona ezkorrak.

**“Hemen zerbait garelariuditzen zaigu, nazioartera joan eta ezer ere ez gara. Orduan, zertan desberdindu gaitezke?”**

**Rikardo Idiakez,**  
Ternua

Bakarrik sentitzen al zarete egiten ari zareten bidean?

**Rikardo Idiakez:** Galdera interesgarria da, zeren azken finean saltzeaz ari gara, gure enpresak bizi-rauteko eta etekinak ateratzeko saldu behar du. Gustatu zait entzun dudana esaldi bat: “Merkatuak ez du konplexurik”. Guk ere horrela jokatu nahi dugu, konplexurik gabe, zer garen azaldu nahi dugu, jakinda zailtasunak izango ditugula eta erabaki asko hartu beharko ditugula. Lehiakortasuna? Mendiko arropan hemen ez dauka-

gu konpetentzia handirik, baina Espainian bai, eta zer esanik ez nazioartean. Kanpoan lehiatzeko, ez dugu aipatu baina produktu onik gabe ez goaz inora, eta bestea, izaera edo marka indartsua behar dugu, eta uste dugu guk hori badaukagula. Ia denoi gertatzen zaigu, hemen zerbait garelariuditzen zaigu, nazioartera joan eta ezer ere ez gara. Orduan, zertan desberdindu gaitezke? Erakuslehoan jarri, eta gure historia eta gure marka eskaintzen diogu merkatuari. Besteek ere badute beren marka, baina gurea berezia dela uste dugu.

**Edorta Azaola:** Lehia hor dago, hizkuntzak bezeroarekiko hurbiltasuna ematen digu, eta konfiantza. Juliok esan du Murtzian euskarazko hitz bat ikusitakoan begiak zabalitzen ditugula. Hemen ere bai, gaztelaniaz egitea edo euskaraz egitea ez da gauza bera.

**Julio Ibarra:** Lehen musika ingelesez erosten genuela esan dut. Gaur egun enpresek dirutza ordaintzen dute *prime time*-an iragarkiak jartzeko. *Be water* [Izan ura] dio iragarriak. Ingeleseko eta frantsesezko izenak dituzten koloniak iragartzen dituzte, eta badiozu “horrek ikaragarria izan behar du!”, nahiz eta ez duzun ezer ulertu. Zergatik ingelesez edo frantsesez? Modernoagoa izateagatik? Ez. Produktuari plus bat ematen diolako. Gehiago saltzen da nahiz eta jendeak ulertu ez. ■



## Baskoien garaitik Nafarroako Erresumara

JAUZARREA elkarteak antolatutako Nazioarteko Atlantiar Biltzarra maiatzaren 16an egingo da Iruñen (Gipuzkoa). Erromatarren aurreko baskoien garaitik hasi eta Nafarroako Erresumara arteko aroei erreparatuko diete. Egun osoko jardunaldiak izango dira eta antropologia alorreko gaiez gain hizkuntzak toki



John Koch eta Koldo Zuazo hizkuntzalariak.

garrantzitsua izango du. Lau hizkuntzalarik beren ekarpenak egingo dituzte. John Koch Galeseraren eta Zelteraren Azterketa Aurreratu Zentroan ari da lanean, eta *Hizkuntza indoeuroparrak eta tokiko hizkuntzak Historiaurrearen bukaeran; zelteraren sorrera* hitzaldia eskainiko du. Theo Vennemann hizkuntzalari alemaniarak *Substratu baskonikoa Erdialdeko Europan: ekonomia toponimia utzitako isla jarri*

dio izenburu bere hitzaldiari. Georg Bossong Zuricheko (Suitza) Unibertsitatetik etorriko da eta *Etimologia baskonikoa, ikuspegi (aurre-)historikoaren argitan* hitzaldia emango du. Koldo Zuazo izango dugu etxekoa. Hizkuntzalariak Nafarroako Erresumara egingo du jauzi *Euskararen bilakaera Erdi Aroan. Hizkuntzaren espazioak Nafarroako Erresumaren inbasioaren ondoren* hitzaldiaren bidez.



## Bahea

Aszen Argandoña  
Nafarroako hizkuntza  
ereduen araberako

segregazioa ezabatzeaz  
[www.plazaberri.info-n](http://www.plazaberri.info-n) esanak:

"Eta neure buruari galdetzen diot zer hizkuntzatan egingo ote dioten elkarri zorioneko bizikidetzara horretan, zer-nolako mesedea egingo ote dien horrek D ereduko ikasleek euskaraz duten hizkuntza gaitasunari, zer hizkuntza erabiliko ote duten bizikidetzaren ikastetxe eredugarri horietako irakasleek lanean, bileretan, oharretan, eta abarretan.

Izan ere, badakigu euskaraz hitz egiteak, euskaraz bizitzen saiatzeak zenbateraino oztopatzen duen bizikidetzara, elkarrekin bizitzea. Beharrik hor ditugun erdaldun elebakarrak, Nafarroako hizkuntza ikasteko ahaleginik egin ez duten horiek, guri, ghetto euskaldun kaikuoi elkarbizitza zer den irakasteko prest. Ederra kontua! A zer mandoa erostarazi nahi diguten!"

## EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

### Kapitalismoaren soldata-politika

INGURATZEN GAITUEN kapitalismo basatienaren adibide diren Nazioarteko Diru Funtzak, Europako Banku Zentralak, Europako Batzordeak eta Espainiako CEOE patronalak, langileei soldatak murriztea eskatu dute azken egunotan. Euren arabera, lehiakortasuna handituko da, baita enplegua ere. Lotsagarria eta eskandalagarria da soldata milioiunak dituztenek soldata-politika hori inposatu nahi izatea. Hain justu, Europan soldaten arteko desberdintasun handiena duten estatuen buru da Espainia. Krisiak ezberdintasun hori handitu baino ez du egin: 2008a baino lehen aberatsenen %20ak pobreenen %20ak baino 5,3 bider gehiago irabazi zuen. 2011n datu hori 7,5 bider izatera igo da.

Diferentzia handitzen ari da CCOO eta UGT gisako sindikatuei esker, 2012an soldaten moderazioa hitzartu baitzuten Espainiako Estatuan. Datu ofizialak kontrastak dira: soldaten murrizketak ez du enplegurik sortu. Hala, enpresa handiek soldatak izoztu zituzten

2013an, baina enplegua deuseztatu zuten (163.000 lanpostu gutxiago). Inposatu diguten soldata-politika kapitalistak ez du enplegua sortzea helburu, etekin handiena lan kostu txikiarekin lortzea baizik. Dena den, politika horrek jasanezinezko egoerara eramanezake, kapitalismoak bere produkzioa saldu beharra baitauka, produzitzen eta etekinak pilatzen segitzeko. Zeinek kontsumituko ditu bere produktuak, herritarrek dirurik ez badute eta langabezia gorantz badoa? Lanaren Nazioarteko Erakundeak mundu mailako hitzarmena eskatu du soldaten jaitiera eragozteko, hazkunderik ezin baita izan doikuntza politikak eta soldaten murrizketak abian jarrita. Kapitalismoak ordea, egungo soldata-politika muturrera eramango du. Langileen eta herritarren erasoaldi gogor batekin baino ez du atzera egingo, etekinak arriskuan ikusten dituenean, alegia.

Juan Mari Arregi



## NAFARROAKO GOBERNUA KINKAN

Ogasunean izandako ustelkeria kasuaren salaketak kolokan jarri du Yolanda Barcinaren gobernua. Aldaketaren atarian, zabaldu diren aukerak aztertu dituzte oposizioako bi parlamentarik.



**Patxi  
Leuza**

GEROA BAI-KO  
LEGE BILTZARKIDEA

### Bertigoa

OTSAILAREN 14AN idatzi dut artikulua. Batzuk ospatzen dute San Valentin, nik ez. Otsailaren bukaeran, agian santutegia aldatu beharko dugu, eta egun horri San Kikil deitu.

Bitxia da, baina PSN ez da existitzen, eta baieztapen arrunt hori azken 30 urteotako ekintzek bermatzen dute. Ez da gauza bera gertatzen Alderdi Sozialistako federazio guztietan, PSN eta PSAN adibidez. Horiek badute berariazko boterea; PSN berriz, PSO Eren adar bat baino ez da, horrek esan nahi duen guztiarekin. Hemen ez da ezer erabakitzen hierarkia gorenak baimendu gabe, eta baimena emango duena Madrilén dago, nola ez!

Hori esanda, orain Nafarroako politikaren egoera larriari helduko diogu, zeinak hain aztoratuta, ilusionatuta eta izututa gaizkan. PSNk hordago handira jo dio Barcinari (ez daukat hain garbi UPNri jo ote dion hordagoa), eta egia, sozialistak lokaztutako baratzean sartu dira; hain lohiz betea, epeak noiz bukatzen diren ere ez dute argi. Bat-bateko erreakzioa? Ez dut uste. Egoera hau baliatu nahian dabilta? Seguruenik bai. Hauteskundeak aurreratuz gero, sozialistek lidergoarekin duten arazo handiaren zati bat konponduko lukete hauteskunde primarioak (denborarik ez dagoelako) saihestuta.

90eko hamarkadako *Thelma & Louise* filmarekin gogoratzen al zarete? Aurrera begira egin zuten ihes eta zoritxarreko amaiera zeukan pelikula. Aldeak alde, protagonistak heroi xarmagarriak baitziren, hauxe da Barcinaren gidoian aurreikusten dudan amaiera: *Yolanda & Louise*.

Barcinaren gobernua kinka larrian dago, eragile eta hedabide guztiek berre-

tsi dute, eta ez luke bost minutuz ere iraungo ez balitz ia denaz susmagarria den pertsona mantentzeko beharrezko diren interes taktikoengatik.

Ulerterrazak ez diren kontuak dabilta borrokan denda atzean: Alde batetik, botereari desesperatuki eusten dio Barcinak, politikoki bereak egin duela oso gertu sumatu baitu. Eta ondo jakina da politikan atzeko atetik atera denak ez duela urrezko alfonbrarik aurkituko aurrerantzean. Bestetik, UPN marka ikaragarri azkar ari da hondatzen eta horrek pentsarazten du atzetik hariak mugitzen dituztenak urduri jartzen ari direla. Oso urduri.

Nafarroako Ogasuneko zuzendari ohiaren adierazpenek zalantzarako tartarik ez dute uzten. Burugabe bat baino (ez dut uste Idoia Nieves hala denik) ez litzateke sokaren alde batetik bestera joango sarerik gabe. Ez dakit zergatik egin duen, baina berriro diot, nire ustez adierazpenak egiazkoak dira.

Nire iritziz, Barcinaren asmoz gain, UPNk ez du onartuko beste 15 hilabetez higatzen segitzea, ondorioak izango bailituzke: ikerketa batzordeak ondorioztatuko duenaz gain, eta epe motzertainera susperraldi ekonomikorik aurreikusten ez dela, beti saldu duen kudeatzaile onaren irudi mitifikatua eroriko litzateke.

Oposizioan dugun lan gaitza aipatuz bukatuko dut. Lehendakariak berak ez badu erabakitzen hauteskundeak aurreratzea eta zentsura mozio baten aurrean bagaude guztiok neurria emango dugula espero dut. Ez naiz UPNren azpizkoez fio eta mozioaren alde bozkatuko nuke, oinetako behatzen bidez sudurra estaliz. ■





# Hauxe da herritarren unea

NAFARROAKO politikagintza aztertzeo sismografoa behar izaten da. Neuk behintzat halaxe bizi izan dut beti. Mugimendu sismiko-politikoek astinaldi ederrak eragiten dizkigute nafarro, espero ez den aldagairik agertzen delako espero ez denean, eskandalu batek edo bestek eztanda egiten duelako, bat-batean batzuen zein beste esanak eta jarrerak aldatu egiten direlako... Eta, azken batean, egoera politikoa une batetik bestera irauli daitekeelako. Eta esango nuke oraintxe, azken urteotako une politiko bereziena bizitzen ari garela.

UPN eta PSNren koalizio gobernu urtebetea hautsi zen. Haustura traumatikoa eta etengabeko arazo iturri sektore batzuentzat. UPN gutxiengoan geratuta, Parlamentuarekiko konfrontazioa gero eta latzagoa izan da. Murrizketa dinamika, Madrildik agindutakoari etengabe men egitea, ustelkeria kasuak, Nafarroako Kutxaren desagertzea, eskandaluak eta epaitegietako auzia... Horrekin batera, aurrekontuak bi urtez luzatu dira, UPNren kontrako boza izan arren hainbat eta hainbat lege onartu dira, dozena bat baino gehiagori Estatuak helegitea jarri die...

Larriena da jendartea dela honen guztiaren ondorioak pairatzen ari dena. Langabezia datuetan inoizko muga guztiak gainditu ditugu, baita bazterkerian edo bazterkeria arriskuan dauden pertsonena ere. Edo inongo diru-sarrerarik ez duten familia, kale gorrian daudenena... Eta horrekin batera, gure zerbitzu publikoen kalitatea kolokan, osasungintzan nabarmenen. Kudeaketa negargarria, dimisioak, murrizketak, pribatizazioak... Kaosa.

*Murrizketarik ez. Pribatizaziorik ez. Oinarriko Errenta, denontzat. Barcina, dimisioa. UPN, kanpora. Ustelkeriarik ez. Hauteskundeak orain. Nafarroak aldaketa behar du.* Lelo hauen oihartzuna ozen entzun da Nafarroako kaleetan azken bi urteotan. Gehiengo sozial horren eskariarekiko erantzukizunez, EH Bildu osatzen dugun bi talde parlamentariook Barcinaren kontrako zentsura mozio bat

abiatu genuen, hauteskundeak deitzeo xedez. Eraitza ezaguna da: PSNren abstentzioak ahalbidetu zuen Barcinak presidente izaten jarraitzea.

Ondotik, egoera sozial, politiko eta instituzionala jasangaitza izan da hilabeteotan. Eta egoera hori erabat larriagotu egin da Ogasuneko Zuzendari ohiak Lourdes Goicoechea eta Barcinaren kontra egindako salaketa eskandalagarrien ostean. Oraindik airean zebilen ustelkeria usaina areagotu eta erabat hedatu da Nafarroan. Erregimena kolokan egon bazegoen, baina lurrikara honek zutoinak oinarritik astindu ditu. Eta muturreko egoera honetan, PSN bera prest agertu da zentsura mozio bat abian jarri eta maiatzaren 25ean hauteskundeak ahalbidetzeko.

Ez dago beste irtenbiderik, egoera honek amaiera behar du. Eta horixe da gure lehentasuna, nafar jendarteari hitza ematea. Nahikoa da, nafarrok ez dugu halakorik merezi. UPNren zikloak amaitu behar du, nafar politikagintzan eta instituzioetan haize fresko eta garbiak sartu behar du, jendartearen onura xede, eta ez bestelako interes partikularrak. Estatu auzia izatea aitzakia ederra izan da Nafarroa hamarkadetan eskuin atzerakoienaren esku egoteko, nahieran xahutzeo eta bere ekonomia eta nafarron ongizatea hondamendira eramateko.

Eta orain, heldu da unea. Ez dago aitzakiarik, hauteskundeak deitzea ezinbestekoa da. Nafarroak behar duen aldaketa sozial eta politiko sakona abiatzeko, nafar jendarteari hitza ematea baita ezinbesteko lehen urratsa. Denok gara beharrezko eta, batik bat, jendartea. UPNk eta bere politikak utzitako ondorioen zama astuna gaitetik kendu eta izan gaitizen protagonista. Herritarren unea da. ■



ARGAZKI PRESS / I. U.

**Bakartxo  
Ruiz**

✦  
BILDU  
NAFARROA-KO  
LEGE BILTZARKIDEA

*Ez dago beste irtenbiderik, egoera honek amaiera behar du. Eta horixe da gure lehentasuna, nafar jendarteari hitza ematea*



# Uholdeen erronka: aurretik saihestu edo ondo jasaten ikasi

Urumea eta Donostiako alde zaharra ez dira Britainia Handia. Ez neurritan. Baina ezta ere naturak gizakiaren hautu okerrei erantzunez eragindako hondamendien inguruko eztabaiden mailan. Britainiar asko ari da hausnarrean oraingo uholde errepikakorren aro izugarriaz. Dena ez dela konpontzen hormigoizko horma berriekin.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

INGALATERRAREN HEGOALDEA nozitzen ari den bi hilabeteko uholde katastrofikoak badauka antza pittin bat asteotan euskal itsas hegial jasan duen itsasaldi bortitza-rekin eta Gipuzkoan Urumea ibarrak gero eta maizago bizi dituen uholdeekin. Han bezala hemen gizakiaren jardun industrialak eragindako klimaren aldaketaren zantzuak aipatzen dira, arrazoiz. Baina, aldi berean, gizakiek lurralde antolamenduan egindako pettoak ere badaude auzitan.

Euskal kostaldean zaharrenek ere ez dute gomutan asteotakoak bezalako uhinik. Ingalaterran ez omen du segidan hainbeste euri egin inoiz azken 248 urteotan. Sabuespenezko gertakari urria ala klimaren erotzearen arrasto goiztiarra? Klima aldaketaz eztabaidatzea libre dela dirudi. Aldiz, lurraldearen planifikazioan egindako astakeriak gutxiago haizatzen dira hedabide nagusietan, horien kulpanteak bizi-rik, aberats eta hurbil dauzkagulako.

Olatuek Donostiako alde zaharra eta zubiak matxuratu berritan, *Noticias de Gipuzkoari* deklaratu dio Urumearen bokaleko dike berria diseinatu zuen José María Medina Villaverde ingeniariak: “[Groseko] hondartza turistikoaren prezioa zen Salamanca pasealekuak olatu gehiago jasatea”. Abisatu omen

zion Odon Elortza orduan alkate zenari orain бага handiek txirtxilatutuzten etxeek aurrerantzean “pittin bat deserosoago” bizi beharko zutela. Berriak pozik utziko zituen Alde Zaharreko biztanleak. Aseguru konpainiek ere ba ote zekiten?

Britainia Handian asko ari da aipatzen asteotan ea zerk larriagotu dituen eurite handiek eragindako uholdeak, eta zer egin daitekeen aurrerantzean horiek saihesteko. Ibaiak drainatu beharra exijitu dute ibarretako herritar askok, garbi ditzatela hondoak, bazterretako zuhaitzak ebaki, eraiki beharreko hormak azkar zutitu...

Honek guztiak diru publikoa eskatzen duenez, politika ekonomikoaren alorreko irakurketa dator kexuokin. Europar neoliberalismoaren aitzindaria izan den Britainia Handiak urte luzez murriztu dituen inbertsioak azpiegiturretan, izan trenetan edo ospitaleetan, Cameronen gobernuari presio egin diote ibaien kanalizazio hobea eskatzen duten jendeok.

Badauka honek paralelismo bat urtea joan eta urtea etorri Gipuzkoan Urumearen amaierako herrietako biztanleek agintariei egiten dizkieten eskariekin: draga ezazue ibaia, murrak egin bazterretan, erriberetako defentsak handitu.

*The Mirror* egunkariaren webgunetik hartutako argakian, Gloucestershire eskualdeko Tewkesbury Abbey herri polita alde guztietatik urez inguratutik. Bi hilabetez luzatzen ari diren uholdeotan eragina izan du itsasoaren egoera bereziak, tirainek oso barruraino eramane baitute haren ura. Baina ibarretan uriolak hain maiz gertatzen ari direnez, askoz barneragoko lurren antolakizuna dago auzitan: erreka bazterren eta hondoan gehiegizko garbiketa, basoen urritasuna, txaraka eta sasiarten beharra... Zuhaitz guztiek ez diote urari berdin eusten. 1983an, uholde ikaragarriek lehertu berria zuten Laudion, Araba Euskaraz festaren barruan, Eguzki elkarteko militanteek bisitariei demostrazioa egin zieten, ontzi batean pinudiko lurra eta bestean hariztikoa jarririk: pinudikoak ura berehala kanporatzen zuen, hariztikoa hobeto eusten zion. Inork ez du gelditu geroztik pinu landaketa. Hurrengo uholdean oroitzeko gara.

Baina, ikusi nahi duenarentzako, gero eta maizago jazotzen diren uholdeok nabarmen erakusten dute badirela hor gauza estrukturalagoak betonezko pareta gehiagok konponduko ez direnak.

Ingalaterrako hegoaldean edo Donostialdean bezala mundu osoan, ibaiak tarteka beretzako hartzen dituen eremuetan eraiki dira etxebizitzak eta beste ekipamendu asko. Hainbeste doktorego tesi sustatzen dituen Euskal Herriko Unibertsitateak badauka bat oraindik faltan: zehazki zenbat metro kubikotan murriztu da Urumearen ibarrraren edukiera 1960tik 2014ra bitartean? Datu horrekin Txomineneako auzotarrek hobeto ulertuko lukete beren etxepean ura zenbat zentimetroz goratu den.

## Errekek kanalizatzea kalterako

Baina, Kantauri bazterretan ez bezala, Ingalaterran ari dira debattitzen ea zer pasatzen zaien beren ibaiei... osotasunean hartuta. Zeren eta ibarretan biltzen den ura, errekek goiko haranetan bildutakoa da. Errio bazterretako hiri planifikazio burugabea bezain kaltekorra gertatu baita azken ehun urtez landa eremuez egin den kudeaketa.

*The Guardian* egunkariak batu ditu analisi txit interesgarriak honetaz. Colin Thorne geografiako irakasleak



plazaratu du *"What Britain has to do if it doesn't want to live with floods (no, it's not dredging)"*, alegia, britainiarrek uholdeetatik libratu nahi baldin badute ibaiak dragatzea ez den zer-bait egin beharko dutela. George Monbiot ingurumeneko kazetari izarra, berriz, idatzi du *"Drowning in money: the untold story of the crazy public spending that makes flooding inevitable"*, euskaraz: "Dirutan itota: uholdeen jatorrian dagoen gastu publiko zoroaren kontakizuna".

Monbiotek oroitarazi du nolaz duela 110 urte ohartuak ziren Pontbren eskualdeko baserritarrak, orain gainez eginda dagoen Severn ibaia-aren hasierako mendixketan bizi zirenak, aldatu beharra zeukatela ordurako martxan hasten ari zen

nekazaritza produktibista. Azienda handiagoak hazteko inguruko basoak eraistea, belazeen ertzetako sastrakak suntsitzea, ur xirripa txikiena kanalizatzea... justu kontrako jokabidea hartu beharra zegoela.

Berriro hasi ziren Pontbrenko laborariak zuhaitzak landatzen, pentze bazterretan hesi landarezkoak berriz ezarri eta abereei sastraka birrinduak eskaintzen bazkatarako, ostera simaurrak konpostatzen. Londrestik ikuskaritzan hara heldutako funtzionarioa harritu omen zen ikusirik eremu haietan euriteetako urak askoz hobeto kudeatzen zituztela baso eta zuhaitzek: horietan lurra 67 bider ur gehiago xurgatzen du belaze baten zoruak baino.

Baina agintariek mende oso batez alderantzizko norabidean antolatu dute landa eremuetan inbertsio guztia. Ez bakarrik gutxi sustatu dutela zuhaitz landaketa, gainera baserritarrak derrigortu dituzte era planifikatuan sastrakak ebakitzera, aintzirak lehortzera, lurzorua konpaktatzen duen makineria erostera, simaurketa abandonatzera lurzorua pobretzen duen ongari kimikoen faboretan. Eta kanalizatzea.

"Aspaldian –dio Monbiotek– uren kudeatzaileek uste zuten uholdeak saihesteko onena zela errekek zuzendu, kanalizatu eta dragatzea, ur gehiago eramateko gai izango zirelakoan. Laster ohartu ziren ez bakarrik gauzak okerragotzen ari zirela". Une batean inguruetan jasotako uraren kopuru txiki bat baino ez du biltzen ibaiak, gehiena lurzoru eta erriberetan bildu beharra dago, horregatik dira hain garrantzizkoak lurzoru ona eta zuhaitz bezala sastrakak asko egotea.

Baina, gainera, ibai bazterrak kanalizatuz haiek dakarten uraren abiadura handiagotu dute ingeniariak, beheko ibarretako lur eta jendeen kalterako. Azkenean denek sufritzen dute. Mendialdeetan lurpeko ura gutxituz udan lehorteak ugaritzen dira. Ibarretan, uholdeak.

Klimaren aldaketak mundu osoan muturreko fenomenoak ugarituko dituela segurua dirudi. Horien artean bizirautea ikasi beharko dugu gizakiok. Hasteko, kalteak arintzeko ordeztu handiagotzen dituzten erabakiak azkar zuzenduz. ■



# ZINKUNEGI OPTIKA

**Garantia.**

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,  
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com





Xabier Letona



DANI BLANCO

## Konfiantza eta presioa

**ZERGATIK** egin ditu Idoia Nievesek Lourdes Goicoechearen aurkako salaketak orain eta ez lehenago? Ez da auzi honetan dagoen galdera garrantzitsua, baina bai edozelako ikerketan aterako dena. Nievesek Goicoechearekin izan zuen lehenbiziko kontaktua 2011ko irailekoa izan zen. Goicoechearen gonbidapenez, elkarrekin bazkaldu zuten eta honek hasierahasieratik –Industria eta Enplegu sailburua zen artean, oraindik Ogasuneko ardura eskuratu gabe zuen– Ogasunak ikertu behar zituen subjektuen zerrenda eskatu zion. Ez zegoela sailburuaren eskumenetan informazio hori eskatzea eta berak ezin ziola halakorik pasatu erantzun ei zion tinko Nievesek. Ezezko borobilaren ondoren, ez zegokion informaziorik berriz ez ziola eskatuko pentsatu zuen Nievesek, baina erratu zen. Gutxienez beste sei alditan saiatu zen, azkena 2013ko apirilean, Yolanda Barcinaren aginduz eta CAN auziaren zurrumbillean, aurrezki kutxaren enplegatutako eta kontseilarien soldatak eta ordainketak eskatu zizkionean.

Ustelkeria salaketa, dena den, dimisioaren arrazoietakoa bat da. Beste bi ere azaleratu zituen Ogasun zuzendari ohiak: Nieves ez zegoen ados Gobernuaren defizit handia hobetzeko Nafarroako enpresei BEZaren itzulketa atzeratu izanarekin; ez ziren legezko epeak beteko eta gainera estu zebiltzan enpresak kaltetzen ziren. Goicoechea sailburuak esparru fiskalean aurrera begira helbururik ez izana jarri zuen dimisiorako hirugarren arrazoi gisa.

Nievesen esanetan, hainbat unetan hausnartu izan du egoera

honi guztiari buruz eta irtenbidea dimisioa izan da. Sinesgarritasuna izan du bere azalpenak eta ausartzat hartu dira bere agerraldia eta salaketak. Baina zergatik ez lehenago? Ulergarria da asko eta asko pentsatu izana, ez baita txantxetako Nafarroako elite politiko eta ekonomikoari desafio egitea. Horrez gain, arrazoiak bildu ditu denboran. Ikerketak, dena den, emango du argibide gehiago.

*Inor ez da fiatzen PSNrekin. Inor. Konfiantza eta presioa, beraz, horra landu beharreko bi esparruak, zenbakiek emango dute eta*

Bat, Legebiltzarreko ikerketa, martxoaren 3an bukatzen dena. Bi, ELA eta Kontuzen salaketekin auzia epaitegietan dago jadanik. Eta hiru... non da fiskala? Nahikoa da bi bertsolarik euskal presoan aldeko kalejiran kantatzea Auzitegi Nazionalera joateko, Nieves *bonbaxoa* ez da nahikoa antza, fiskaltzak oraindik ez du tutik ere esan. Ez dago dudarik, justizia berdina da guztientzat.

**EURIA** ari du bustiaren gainean: murrizketa basatiak –132 milioiko murrizketa izan zen UPN-PSN Gobernuaren apurketaren detonagailua–, Pegenaute sailburuaren dimisioa diru zuriketagatik, CAN auzia, Mediterrania de Catering, D ereduaren aurkako eraso, ETB ikusteko oztopoak... Gobernuan gutxiengoan, kalea borborka, oposizioa etengabeko erasoan, UPN bitan zatitua eta Catalán-Sanz bikotea kale kantoian aiztoarekin zain... eta Barcina lehendakaria itzulera gabeko bidaian ihesi harrokeria iraingarrian.

Meritua badu, aitortu behar zaio errautsetatik berpizteko gaitasuna eta indarra. Alkate sasoiaren jakin izan zuen bere inguruan botere-kargu-diru taldea eratzen eta makulu hori funtsezko izan zaio alderdi lehian. Madrildik ere luzatu diote laguntza: Nafarroako Lurralde Auzitegi Mari Paz Benito epaileak estu zuenean, auzia Madrileran eraman eta Espainiako Auzitegi Gorenak errugabe jo zuen.

Horieta arrazoi bakoitzaren bidez da garrantzitsua Barcinak zutik jarrai dezan, baina ez dira erabakigarriak. Barcina eta bere Gobernuaren bizitza eta biziraupenaren arrazoi nagusiak hiru hizki ditu: PSN. Jaio, bizi eta hil, hori da edozelako bizidunen ibilbidea eta Roberto Jimenez alderdia hori izan da Barcinarentzat: urte luzetan Legebiltzarretik sostengatu ondoren, koalizio gobernua eratu zuen UPNrekin; 2013ko zentsura mozioan ez parte hartzean biziraupenerako oxigenoa eman zion; eta 2014ko zentsura mozioarekin –Barcinak lehenago dimisioa ematen ez badu– hil egingo du.

Nekez balia –edo eraiki– daiteke hobeto abagunea. Europako hauteskundeak 2009, PSNk 62.000 boto; Nafarroako Legebiltzarreko hauteskundeak 2011, PSNk 51.000 boto. Ezin moztarria hobeto hautatu. Baina moztarritik egiazko trajera iragateko ordua da. Herritarrak mintzatuko dira maiatzaren 25ean eta oraindik inor ez da fiatzen PSNrekin. Inor. Konfiantza eta presioa, beraz, horra landu beharreko bi esparruak, zenbakiek emango dute eta. ■



# ASTE HONETAKO zozketak



Argiako harpidedunentzat



## HAMLET Zumarraga

2 lagunentzako bina sarrera  
Martxoak 7 · 22:30  
Zelai Arizti aretoa

Artedrama Kultur Leioa  
Juan Ramon Aketxe plaza, 11  
Leioa BIZKAIA

[www.artedrama.com](http://www.artedrama.com)

1



## Donostiako Aquariuma

4 lagunentzako  
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1  
Donostia GIPUZKOA

[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)

2



## EUREKA! zientzia museoa

2 lagunentzako  
bina sarrera

Mikeletegi, 43  
Donostia GIPUZKOA

[www.eurekamuseoa.es](http://www.eurekamuseoa.es)

3



## Aneika Ara

5 CD opari

Gaztelupeko Hotsak  
Soraluze, GIPUZKOA

[www.hotsak.com](http://www.hotsak.com)

4



## Illimani

2 liburu opari

[www.argia.com/denda](http://www.argia.com/denda)

5

## AZKEN IRABAZLEAK (2402. Argia)

### Kultur Maratila NAN

DANTZA · Ertza - Asier Zabaleta

- Jesus Mari Olaizola Lazkano (Zarautz)
- Xabier Zuzarregi Salaberria (Zizur Nagusia)

### Kultur Maratila ZAZPI ALDIZ ELUR

ANTZERKIA · Tanttaka

- Fray Juan de Zumarraga Institutoa (Durango)
- Roberto Kerexeta Zulaika (Elgoibar)

### Kultur Maratila TRASHUMANTZIA

MUSIKA · Mixel Etxekopar & Francois Rossé

- Xabier Zubizarreta Lasagabaster (Arrasate)
- Jose Garaizabal Aizpurua (Elorrio)

### Kultur Maratila PEPINO USTELAK

ANTZERKIA · JB Pedradas

- Munitibarko Udal Liburutegia (Munitibar)
- Iñaki Sagasti Arana (Arrasate)

### OKATXU Komikia

- Iñaki Zubeldia Otegi (Ikaztegieta)
- Ibon Manterola Garate Urrestila

\* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

## PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • [guinea@argia.com](mailto:guinea@argia.com)

[www.argia.com/guinea](http://www.argia.com/guinea)

guinea

argia





# Garai interesgarriak. Begirada independentea.



**argia**

Harpidetza  
etxean jaso nahi dut

**ARGIaren urte osoko harpidetza**  
(46 zenbaki, 11 Larrun, Urtekaria)

Hego Euskal Herrian 12 € hilean  
Iparralde Euskal Herrian 15 € hilean

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefona

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

☐ Ikarle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo  
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

Postaz bidali edo 943 37 15 45 • harpidetza@argia.com

Jaso lekuan  
kobratu  
SEILORIK EZ

**argia**

1-FD POSTA KUTXA  
20160 LASARTE-ORIA  
(GIPUZKOA)

ERANTZUN KOMERTZIALA  
Baimen zkia. 17352  
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

TOLESTU

TOLESTU

ZELOPAREA  
HEMENDI VITI